

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZUZENBIDE FAKULTATEA

ZUZENBIDEKO GRADUA

2022-2023 ikasturte akademikoa

Izenburua: COVID-19aren ERAGINA ESTATU-MAILAKO NAHIZ
NAZIOARTEKO KONTRATUETAKO EZINBESTEKO
KLAUSULETAN

Egilea: Saroi Eskisabel

Tutorea: Igone Altzelai

AURKIBIDEA:

1. Sarrera	3
2. <i>Pacta sunt servanda</i>	4
3. <i>Rebus sic stantibus</i> klausula	6
3.1. Klausularen jurisprudenzia-lerroa	7
3.2. Klausularen irismena	11
4. <i>Hardship</i> klausula	13
4.1. Klausula 1980ko Vienako Hitzarmenaren argitan	13
4.2. Klausula UNIDROIT printzipioen argitan	15
4.3. Klausularen irismena	16
5. Ezinbesteko kasuetarako klausulak	17
6. COVID-19aren garaian, ezinbesteko klausulak hainbat herrialdeetan	24
6.1. Ezinbesteko klausulak Europako Zuzenbide Zibilean	25
6.1.1. Frantzia	25
6.1.2. Italia	28
6.1.3. Alemania	31
6.2. Ezinbesteko klausulak <i>Common Law</i> sisteman	33
6.2.1. Erresuma Batua	34
6.2.2. Ameriketako Estatu Batuak	37
7. Ondorioak	40
8. Bibliografia	42
9. Jurisprudenzia eta araudia	45

1. Sarrera

2020an, Covid-19aren ondorioz bizi izandako pandemiak, ezohiko eragina izan zuen gure eguneroko bizitzako eremu guztietan, egoera bakoitzean zenbait erronkei aurre egin behar izan genielarik, hala nola, telelanaren formula inplementatu beharra, hezkuntza-eremuan online irakaskuntza indartu beharra, osasun-eremuan tresna diagnostiko berriak izateko beharra, eta enpresa-eremuan, enpresaren jarduera berriz ere martxan jarri eta honek ekar zitzakeen ondorioei erantzun azkar bat emateko beharra. Hori horrela, azken eremu hau da lan honen bitartez aztertuko dena.

Izan ere, ezohiko egoera honen ondorioz, hamaika kontratu berrikusi behar izan ziren. Kontratuko alderdiek adosturikoa aldatzea eragin baitzuen osasun-larrialdiak. Hau aintzat hartuta, kontratuen eremuan oinarri den *pacta sunt servanda* printzipiotik abiatuko gara, bera baita kontratuen segurtasunaren eta berme juridikoaren adierazle.

Printzipio honen bitartez, hitzartutakoaren arabera bete behar dira kontratuak. Hau, Kode Zibilaren 1091. artikulutik ondorioztatu dezakegu, uste baita, kontratuan adierazitako adierazpena alderdien borondate komunari dagokiola. Hala ere, ikusi dugu aurreikusi ezin diren salbuespenezko egoerak ere gertatzen direla, aurreikusitakoa osorik betetzea eragozten dutenak, edota berandu edo geroraturik betetzea ekartzen dutenak. Halako kasuetarako, bide bat izaten da kontratuetan, alegia, ezinbesteko kasuetarako klausulak ezartzea, kontratuak nahitaez bete beharraren arau orokorrari mugak ezarriz. Dena dela, ez da ohikoa izaten klausula hauek txertatzea edota klausula hauek txertatu bai, baina pandemia-egoera zehatz-mehatz aurreikustea.

Hortaz, ikerketa lan honen xedea izango da, alde batetik, prestazioak betetzeko ezintasunari eta gerora sortutako desorekari aurre egiteko eremu juridikoan planteatzen ari diren alternatibak aztertzea, eta beste alde batetik, Espainian ez ezik, European nahiz *Common Law* sistemaren jarraitzaile diren herrialdeetan mekanismo hauek jasotzen duten arauketa zein den aztertzea, eta pandemiak izan zuen eragina eta inpaktua ikertzea. Horretarako, ezinbesteko klausula horiei kasu bakoitzean eman zaien interpretazioa azalduko delarik, Covid-19a klausula hauetan barne hartzea posible den ala ez aztertuz. Beraz, kontratuen oreka berrezartzeko mekanismo eta tresnak zein izan diren aztertzeari ekingo diogu.

2. *Pacta sunt servanda* printzipioa

Kontratuen teoria orokorra gidatzen duen printzipio hau, Zuzenbide Zibiletik eratorzen den arau tradizionala da, non, honen arabera, kontratugileak kontratua betetzera beharturik geratzen diren, euren artean hitzartutakoa bete beharko dutelarik, inongo aitzakiarik gabe. Alegia, kontratua ezeztazina izatea *pacta sunt servanda* printzipio gorenean barnebiltzen da¹.

Printzipio hau, kontratuaren ideari berezkoa zaio, ezinbestekoa delarik jarduera ekonomikoaren segurtasunerako, bai segurtasun juridikoaren ikuspegitik, bai eta segurtasun ekonomikoaren ikuspegitik. Horrek azaltzen du, *pacta sunt servanda* printzipioa, Espainiako tradizio juridiko bereko ordenamendu guztiek partekatzea, baita ere *Common Law* kontratu-sistemak ere partekatzea, non, azken sistema honetan, gure sisteman baino indar handiagoz aplikatu eta ulertu izan den².

Halaber, Kode Zibileko zenbait artikulutatik ondorioztatzen da. Esaterako, Kode Zibileko 1091. artikulua arabera, kontratuetatik sortzen diren betebeharrak lege-indarra dute alderdi kontratugileen artean, eta betebeharrak kontratu horien arabera bete behar dira³. Are gehiago, kontratuak lege-indarra izango dute kontratugileen artean, haren forma edozein izanda ere⁴. Hala eta guztiz ere, argi izan behar da, Kodeak ez diola lege-balioa ematen kontratuari berari, baizik eta lege-indarra esleitzen diola, alegia, alderdiek nahitaez bete behar diren indarra esleitzen dio. Azken finean,

¹ ARNAU MOYA, F. *Lecciones de derecho civil II. Obligaciones y contratos*, Universitat Jaume I, Servei de Comunicació i Publicacions, Castell-o de la Plana, 2008-2009, 182. orr.

² JEREZ, J.C. “*Pacta sunt servanda*, imprevisión contractual y alteración sobrevenida de las circunstancias”, *Revista Aranzadi de derecho patrimonial*, 29, 2012, Ik. I. puntua.

³ Código Civil, artículo 1091. *Las obligaciones que nacen de los contratos tienen fuerza de ley entre las partes contratantes, y deben cumplirse a tenor de los mismos.*

⁴ Código Civil, artículo 1278. *Los contratos serán obligatorios, cualquiera que sea la forma en que se hayan celebrado, siempre que en ellos concurran las condiciones esenciales para su validez.*

kontratuaren betebeharrezkotasuna, alderdien arteko borondatek eratorzen da, Kode Zibileko 1260. artikuluan ikus dezakegun bezala, ez delarik zinik onartuko⁵.

*Pacta sunt servanda*ren erregulazioarekin jarraituz, aipatzekoa da Kode Zibileko 1258. artikulua. Artikulu honen bitartez, ikus baitezakegu, kontratuaren obligaziozko izaera honek zenbaterainoko irismena duen. Alegia, kontratuak adostasun hutsaren bitartez burutzen dira, eta, harrezkero, bete beharrekoak dira, bai beren-beregi itundutakoa betetzeari begira, baita, kontratuaren izaeraren arabera, onuste, usadio eta legearekin bat datozen ondorio guztiei begira ere⁶. Alegia, betebehar horrek barne hartzen ditu, ez adierazi arren, kontratuaren izaeratik eratorzen diren ondorio guztiak, fede onaren, erabileraren eta legearen arabera. Espainiako Kode Zibilean duen erregulazioarekin amaitzeko, 1256. artikuluari egingo diogu erreferentzia, artikulu honen bitartez, kontratuaren betebeharrezkotasuna eta baliozkotasuna, alderdietako baten esku uztea saihesten edota debekatzen baita⁷.

Espainiako ordenamenduarekin batera, nazioarteko kontratu-harremanetan ezinbestekoa da Nazioarteko Zuzenbidearen eremua ere aztertzea, izan ere, nazioarteko eremuan ere ikus dezakegu printzipio honen isla. Eremu zabalago honetan, alderdiak lotzen dituzten itunetan xedatutakoa betetzera behartzeko erabiltzen den printzipio absolutua da, 1969ko Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Hitzarmenaren 26. artikulutik eratorzen dena. Artikulu honen esanetan, indarrean dagoen tratatu orok, alderdiak behartzen ditu ituna betetzera, fede onaren bitartez bete beharko dutelarik⁸.

Modu berean, posible izango litzateke esatea, printzipio honek talka egiten duela orain azalduko dugun *rebus sic stantibus* klausularekin, alegia, azken honek, *pacta sunt*

⁵ Código Civil, artículo 1260. *No se admitirá juramento en los contratos. Si se hiciera, se tendrá por no puesto.*

⁶ Código Civil, artículo 1258. *Los contratos se perfeccionan por el mero consentimiento, y desde entonces obligan, no sólo al cumplimiento de lo expresamente pactado, sino también a todas las consecuencias que, según su naturaleza, sean conformes a la buena fe, al uso y a la ley.*

⁷ Código Civil, artículo 1256. *La validez y el cumplimiento de los contratos no pueden dejarse al arbitrio de uno de los contratantes*

⁸ Convención de Viena sobre el Derecho de los Tratados, Viena, 23 de mayo de 1969, artículo 26. *Todo tratado en vigor obliga a las partes y debe ser cumplido por ellas de buena fe.*

servanda printzipioaren muga gisa jokatzeko duela. Edozein modutan, *pacta sunt servanda* printzipioari, *rebus sic stantibus* printzipioarekin aurre egitea ez da zuzena. Alegia, *pacta sunt servanda*, fede onaren argitan ere interpretatu behar da, hartutako konpromisoak betetzean zintzotasunaren eta leialtasunaren deribazio edo ondorio gisa. Bi klausulak, kontratuzko fede onaren adierazpen dira, baina hauekako klausula bakoitzaren interpretazio isolatua egiteak nahi ez dugun muturretara eraman gaitzake, hala nola, obligazio bidegabeak betetzera edota bidezko obligazioak ez betetzea⁹.

Alabaina, segurtasun ekonomiko nahiz juridikorako funtsezkoa den printzipio hau, ez da modu absolutu eta trinko batean ulertu behar. Posible da zenbait inguruabar ematearen ondorioz, kontratua hitzartu zen bezalaxe bete ezin izatea, eta ondorioz, printzipio hau urratzea. Beraz, *pacta sunt servanda* printzipioa ez da absolutua, ezta mugagabea ere. Haren mugak Kode Zibileko 1255. artikuluan xedatzen baitira, baita kontratuaren teoria orokorrean ere¹⁰.

3. *Rebus sic stantibus* klausula

Arestian aipatu bezala, pandemiak sortutako osasun-larrialdi egoerak kontratuen eremua nahasi zuen, kontratuak berrikusi eta egoera berri hartara egokitu behar izan zirelarik. Halako egoeretarako erabili izaten den mekanismorik ohikoena, *rebus sic stantibus* klausula da.

Klausula honen bitartez, kontratuan aldaketak egitea edo kontratua berrikustea ahalbidetzen da, kontratua sinatzearen uneko inguruabarren aldaketa bat ematen den kasuan. Alegia, klausula honek aukera ematen dio kontratuko alderdi bati kontratua formalizatzeko unean esleitu ez den kontratu-arrisku baten inpaktu negatiboa salbuesteko edo murrizteko; izan ere, ezohiko eta aurreikusi ezin diren inguruabarrak gertatzearen bidez gauzatzen da arrisku hori, eta inguruabar horiek ezin zaizkio inori egotzi.

Klausula honen xedea, kontratu-harremanaren orekari eustea da, alegia, sinaduraren uneko egoera aldatzea eragin duten inguruabar horien ondorioz,

⁹ RODRIGUEZ, E. “El rebus sic stantibus en la contratación internacional”, *Iuris Tantum. Revista. Boliviana de Derecho*, 16, 2013, 49. orr.

¹⁰ CASTIÑEIRA JERÉZ, J. “Hacia una nueva configuración de la doctrina rebus sic stantibus: a propósito de la sentencia del Tribunal Supremo de 30 de junio de 2014”, *InDret* 4, 2014, 8. orr.

ezinbestekoa da alderdien betebeharrak orekatzea, haietako bat soilik izan ez dadin ustekabeko egoeraren onuradun. Ildo honetan, ez da nahikoa sinaduraren uneko inguruabarrak aldatu izana alegatzea, kontratua indarrrik gabe uzteko asmotan, izan ere, alderdiek euren artean kontratua sinatzean, etorkizun batean aldaketak gertatu ahal izateko aukera ere euren gain hartzen ari dira¹¹.

3.1 Klausularen jurisprudenzia-lerroa

Klausula hau, erabat jurisprudenziala den klausula da, ez dagoelarik araututa Kode Zibilean. Hori horrela izanda, ezinbestekoa da Espainian klausula honen inguruan eman den jurisprudenzia zein izan den aztertzea. Izan ere, klausularen arauketa ezak, auzitegien erantzunak erabat ezberdinak izatea ekarri du kasu bakoitzean, kasuan kasuko inguruabarrak aintzat hartuta, oinarri ezberdinetan oinarritu direlarik kasu bakoitzari erantzuna ematerako orduan.

Nolabait onartua dago, 1957ko maiatzaren 17ko epaia izan zela “jurisprudenziaren doktrina tradizional” gisa kalifikatu zena¹². Epaia hau izan zen klausula honen onarpena egin eta bere aplikazio murrizta mantenduz, beharrezko baldintzak galdu zituen. Haren aplikazioa aurrera eraman ahal izateko, oso neurri zorrotzak aurreikusten dituelarik. Bestela esanda, klausula aplikatu ahal izateko *numerus clausus* betekizunak sortu zituen sententzia izan zen. Ondorengo hauek izan ziren: a) *Rebus sic stantibus* klausula ez egotea legez aitortua. b) hala ere, doktrinaren elaborazioaren ondorioz, eta ekitate-printzipioen erabilgarritasunaren ondorioz, Auzitegiek landu eta onartzeko aukera egotea. c) klausula arriskutsua dela, eta hala badagokio, kautelaz onartu behar dela. d) hori onartzeak funtsezko premisa hauek eskatzen dituela: i) Kontratua betetzeko unean zeuden inguruabarren ezohiko aldaketa, kontratua betetzeko unean zeuden zirkunstantziei dagokienez; ii) alde kontratatzaileen artean neurri kanpoko desoreka egotea, kalkulu orotatik kanpo, non, desoreka horrek, kontratua suntsitzea ekarri duen; iii) aipaturiko guztia, ezinbesteko inguruabar horien ondorioz gertatu izana; e) klausularen ondorio edo efektuei dagokienez, orain arte ukatu egin zaizkio kontratua hutsaltzeko, suntsiarazteko edo azkentzeko arrazoiak,

¹¹ ARNAU MOYA, F. *op. cit.* 202. orr.

¹² PARRA LUCÁN, M.A. “La clausula *rebus sic stantibus* en la Jurisprudencia de la Sala Primera del Tribunal Supremo de España”. *Anuario de la Facultad de Derecho de la Universidad Autónoma de Madrid* 2, 2021, 27. orr.

kontratua aldatzeko ahalmena soilik eman zaiolarik, prestazioen edo betebeharren desoreka konpentsatzeko asmotan¹³.

Klausularen bidezko aplikaziorako galdatzen diren baldintzak zein diren aipatuta, ezinbestekoa da inguruabarren ezohiko aldaketen baldintzan geldiduna egitea. Izan ere, beharrezkoa da baldintza honekiko erreferentzia une bat ezartzea, une jakin batekiko aldaketa bat egon behar baita. Hala, kontratua egiteko unea da erreferentziazat hartzen den unea. Hori horrela izanik, kanpo behatzaile batek, kontratuaren inguruko inguruabarrak aztertuko balitu alderdiek sinatu zuten unean, eta hauek kontratua gauzatzeko uneko inguruabarrekin alderatuko balitu, bi uneetako inguruabarren arteko alde handia ikusi beharko luke¹⁴. Hori hala ez izatekotan, ez litzateke lehen betekizun hau betetzat joko, eta ondorioz, ez litzateke bidezkoa izango klausularen aplikazioa.

Gainera, inguruabarren aldaketa horrek, esanguratsua izan beharko du, bai kontratuaren helburu ekonomikoa zapuzteko, bai eta kontraprestazioak orekatzeko. Kontratuari buruzko esparruaren aldaketaz gain, aldaketak negozioaren oinarriari ere eragin beharko dio, hau da, negozioaren negoziazio-asmoari eta hasieran perfektionatutako negozioaren oinarriak eman zuen funtsezko eduki ekonomikoari¹⁵.

Espanian, urteetan zehar eman diren epaiek, Kode Zibilean arauturiko *pacta sunt servanda* printzipioaren alde egin dute, gure zuzenbideak baztertu egin duelarik kontratuaren edukia aldatu ahal izatea, kontratatzeko unean zegoen testuingurua erabat aldatu izanda ere. Alegia, Auzitegi Gorenak oso salbuespen gisa aplikatu izan du klausula hau, kasu larrietan aplikatzea erabaki duelarik. Gerora sortutako inguruabarrak direla eta, kontratua aldatzeko aukera izateak, *pacta sunt servanda* printzipioak esleitzen duen ezinbesteko segurtasun juridikoaren aurka egiten baitu. Hori

¹³ *Ibid.* 27. orr.

¹⁴ HERRERO URTUETA, E. “La ruptura del equilibrio contractual: Hacia una tendencia común desde diferentes derechos nacionales”. *REDUR-Revista Electrónica de Derecho de la Universidad de La Rioja* 19, 2021, 101. orr

¹⁵ BENITO OSMA, F. “La excesiva onerosidad en las prestaciones en la contratación mercantil” in SÁNCHEZ RUIZ, M. MORILLAS JARILLO, M.J.; PERALES VISCASILLAS, M.P. PORFIRIO CARPIO, L.J. (Zuz.) *Estudios sobre el futuro Código Mercantil: libro homenaje al profesor Illescas Ortiz*, Universidad Carlos III de Madrid, 2015, 1229. orr.

dela eta, baldintza zorrotzen pean aplikatu beharreko klausula da, ikusi berri dugun bezala¹⁶.

Jurisprudentziak klausula aplikatzearen inguruan izan duen mesfidantzaren zergatiak legegileak klausula ez positibizatzean datza. Alegia, Kode Zibilean ez da klausula honen inguruko aipamen espresurik egiten, Auzitegi Gorenak azaldu baitzuen, klausula hau ez zela Kode Zibilean txertatu, Kodearen beraren funtsaren aurkakoa zelako eta beraz, klausula honen aplikazioa erabat salbuespenezkoa eta murrizta izan beharko zela¹⁷.

Testuinguru honetan, beharrezkoa da 2008. urteari erreferentzia berezia egitea, honek klausularen aplikazioan zuzeneko eragina izan baitzuen. 2008ko krisi ekonomikoa, Ameriketako Estatu Batuetan piztu zen. Krisi finantzari honek, sekulako likidezia arazoak ekarri zituen, honek zeharkako modu batean, elikadura krisia, eta burtsako luiziak eragin zituelarik, nazioarte mailako krisi ekonomiko bat sortuz. Egoera hau, bi une jakinetan azaleratu zen, alde batetik, etxebizitzak erosteko finantzaketaren lorpenean, eta beste alde batetik, behar bezala egindako kontratuaren ondoriozko betebeharrak bere gain hartzeko zailtasunetan.

Egoera honen aurrean, krisi ekonomikoaren ondorioz inguruabarrak gerora aldatzea behin eta berriz errepikaturiko argudioa izan zen *rebus sic stantibus* klausularen babesean, kontratu-harremanak aldatzeko edo kontratua suntsiarazteko. Horrela, 2012. urteaz geroztik, Auzitegi Gorena, krisi ekonomikoak inguruabarren ezohiko eta aurreikusi ezinezko aldaketa osatzeko aukera aztertzen hasi zen. Hala, Auzitegi Gorenaren 2012ko azaroaren 8ko epaiak (RJ 2013, 2403), azkenean *rebus sic stantibus* klausularen aplikazioari uko egin bazion ere, onartu egin zuen, epaitutako kasu zehatzaren testuingurutik kanpo, krisi ekonomikoa kontuan hartzeko aukera, klausularen esparruan. Antzeko iritzia izan zuen Auzitegi Gorenaren 2013ko urtarrilaren 17ko epaiak (RJ 2013, 1819). Epai hauek, Auzitegi Gorenaren aurreko jurisprudenziatik aldendu ziren zalantzarik gabe, 2008ko finantza-krisiaren ondoren ere ukatu egin baitzien birtualtasun-ekonomiaren aldaketa globalei kontratu-harremanen

¹⁶ RODRIGUEZ, E. *op. cit.* 49. orr.

¹⁷ LÓPEZ MOLINA, M. “Lidiando con lo imprevisible. Consecuencias jurídicas, contractuales, de acontecimientos inesperados y posibles soluciones legales”, *Diario La Ley* 9639, 2020 *on line*.

aldaketa edo suntsiarazpena, *rebus sic stantibus* klausulan oinarrituta¹⁸. Alabaina, nahiz eta bi epai hauetan ez onartu *rebus sic stantibus* klausularen aplikazioa, honek, krisi ekonomikoa kontratuko baldintzak aldatu edo kontratua ez betetzea eragozten duen trastorno larria sortzeko gai den zirkunstantziatzat hartzeko aukera ireki zuen¹⁹.

2014. urtean, Auzitegi Gorenaren 2012ko epai hauen ondoren, Auzitegiak bi epai berri eman zituen, klausula honen aplikazioa eta irismena aldatzen hastea eragin zutenak. Urte honetara arte, aplikazio erabat murrizta eta salbuespenezkoa zuen, magistratuak azaldu bezala, arriskutsua izatera heldu zitekeela pentsatzen zutelarik zenbait adituek²⁰.

Ildo honetan, ezinbestekoa da Auzitegi Gorenaren 2014ko ekainaren 30eko epaia aipatzea, izan ere, epai honen bitartez, aplikazio murriztaile hori alde batera utzi eta klausula honen aplikazioa normalizatzea bilatzen da²¹.

Dena den, doktrinaren iritzia aintzat hartuta, badirudi, Auzitegi Gorenak, bi plano nahasten dituela. Alde batetik, *rebus sic stantibus* klausularen figura normaltasunez aitortzea eta beste alde batetik, klausula bera normaltasunez aplikatzea. Hala, doktrinak dio, figura bera normaltasunez aitortzeko, gure ordenamendu juridikoaren elementu integratzaile gisa, baina haren aplikazioak erabat murriztaile eta salbuespenezkoa izaten jarraitu behar duela. Hori horrela, epaiak azken hau esan nahi duela ematen duen arren, klausularen “zuhurtziazko aplikazioa” aipatzen duenez, Auzitegiaren azalpenak argitasun handiagoz azaltzearen falta sumatzen da. Izan ere, formulazio zehatz horrek, pentsaraziko luke, klausula aplikatzeko galdatzen diren muturreko baldintza horiekiko zorrotasuna malgutu egiten duela, eta honek, kontratuko

¹⁸ GÓMEZ POMAR, F. eta ALTI SÁNCHEZ-AGUILERA, J. “Cláusula rebus sic stantibus, viabilidad y oportunidad de su codificación en el Derecho civil español”, *InDret* 1, 2021, 513. orr.

¹⁹ GARCÍA LÓPEZ, S.; DURÁN VARGAS M.S.; eta BLANCO GONZÁLEZ, G. “La Rebus Sic Stantibus en España. Evolución jurisprudencial” in IZAGUIRRE GÓMEZ, S.; PERALES VISCASILLAS, P.; ELÍAS DE TEJADA CASANOVA, J.M. eta LÓPEZ MARTÍNEZ-ACACIO, P. (zuz.) *La rebus sic stantibus en tiempos de pandemia: análisis general e impacto por sectores económicos*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2021, 189. orr.

²⁰ LÓPEZ MOLINA, M. *op. cit.* 5. orr.

²¹ Sentencia del TS 2823/2014 (Sala de lo Civil), de 30 de junio de 2014, ECLI:ES:TS:2014:2823.

alderdien arteko lotura apurtzea ekarriko luke, inongo justifikaziorik emateko obligazioa izan gabe²².

Aurretiaz aipatu bezala, klausula jurisprudenzial edota doktrinala izanda, Auzitegi Gorena izan da honen aplikazioaren inguruan arduratu dena. Klausula honen aplikazioa ez baita mugagabea; alegia, esan bezala, beharrezkoa izango da zenbait baldintza betetzea klausula hau aplikatu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, esan behar da, betekizun hauekin batera, beste “betekizun” baten presentzia ere azaldu dela azken urteetan, kontratuaren iraupenari dagokiona.

Honen zergatia, 2020ko martxoaren 6an Auzitegi Gorenak emandako epaian aurkitzen da, izan ere, Covid-19aren presentzia zela eta, Espainian alarma egoera dekretatu baino astebete lehenago klausula honen inguruko epaia eman zen, jurisprudenzia berritzailearen aurka egin eta berriz ere garai bateko tesi murriztaile hartara itzultzeko asmoa azalduz. Epai honen arabera, klausula honen aplikazioa zilegi izatea errazagoa izango da iraupen luzeko kontratuetan²³. Iraupen luzeko kontratuen kasuan, denbora-marjina handiagoa baita, eta hortaz, kontratua egin zen uneko inguruabarrak aldatu ahal izateko aukera ere zabalagoa baita.

Hala ere, ikusi dezakegu, epai honetan, nahiz eta kontratuaren iraupenari aipamen egiten zaion, azken finean, atzean dagoen arrazoi juridikoa, *rebus sic stantibus* klausula aplikatu ahal izateko galdatzen diren aparteko gertaera horiek gertatzearen zailtasunean aurkitzen dela. Alegia, epe laburreko kontratuen kasuan, oso zaila da aparteko gertaerak eman eta gainera gertaera horiek alderdien arteko desoreka bat sortzea. Beraz, esan dezakegu, segidako traktuko kontratu bat iraupen laburrekoa izateak ez lukeela eragotzi beharko *rebus sic stantibus* klausularen aplikazioa, betiere, inguruabarren aldaketa ezin bazaio kontratuaren arriskuari atxiki. Izan ere, inguruabarrak aldatu izana, kontratuaren beraren arriskuen ondorio izan bazen, ezinezkoa izango litzateke *rebus sic stantibus* klausularen aplikazioa.

²² RAVÉNTOS SOLER, A.; LUNA YERGA, A. eta XIOL BARDAJI, M. Cuesta abajo y sin frenos. Comentario a la sentencia de la Sala Primera del Tribunal Supremo, de 30 de junio de 2014, *Revista Aranzadi Doctrinal* 3, 2015. Ik. 4.1 puntua.

²³ Sentencia del TS 156/2020 (Sala de lo Civil), de 6 de marzo de 2020.

3.2 Klausularen irismena

Klausularen oinarri nagusiak aztertuta, ezinbestekoa da argitzea, klausula honek soilik kontratua berraztertu edo aldatzeko gaitasuna duela, alegia, ez du gaitasun askatzailerik, suntsiarazlerik edota kontratua azkentzeko gaitasunik. Izan ere, klausula hau aplikatzea planteatzen denean, ez da kontratua edota prestazioa bete ezin delako planteatzen, baizik eta prestazio hori bete ahal izateko alderdietako batek kalte ekonomiko handia jasan behar izango duelako²⁴. Edozein modutan, aztertu egin beharko litzateke ea, iraupen luzeko kontratu-harreman jakin batean, egoera ekonomiko kritikoaren eraginaren ondorioz, nahikoa den harreman hori ekitatez moderatzea, edota beste urrats bat eman beharko litzatekeen, eta kontratua indarrrik gabe utzi ahal izango litzatekeen²⁵.

Hau, ez da lan erraza, izan ere, kontratukideen arteko adostasunik ezean, Auzitegia bera izango baita arazo honi irtenbidea ematen saiatuko dena. Hala egin zuen, Auzitegi Gorenak 1994ko apirilak 20an. Kasu honetan, errentamendu-kontratu bati buruzko auzi bat epaitu zuen. Errentamendu-kontratu horren xedea errentan hartutako finkatik sakana ateratzea zen. Hala, errentamendua egin zen unean, ustiapen-aukera onak zeuden. Gerora, ordea, ustiapen-aukera horiek erabat desagertu ziren, ezin izango zelarik kontratuaren helburu normalera iritsi. Ondorioz, errentariaren itxaropenak eta itxaropen legitimoak zapuztu ziren. Egoera honetan, errentariak kontratua suntsiaraztea eskatu zuen.

Horren aurrean, Auzitegi Gorenak errentariaren eskaera ontzat eman zuen, kontratuaren indarraldian zehar negoziazio-kausa desagertu egin zelako. Hala, ulertu zuen, kasu hartan, ez zela kontratua moderatu beharreko kasu bat, hura indarrean utziz *rebus sic stantibus* klausularen doktrinaren arabera, ez baitzuen zentzurik kontratua indarrean uzteak, alderdietako baten prestazioa ezinezkoa bilakatzen bada. Hau da,

²⁴ GARRIDO GÓMEZ, M.I. “Lo que queda del principio clásico *Pacta Sunt Servanda*”. *Derecho y Cambio Social* 25, 2011, 1-8 orr.

²⁵ VIVAS TESÓN, I. “Crisis económica y alteración extraordinaria de las circunstancias del contrato, ¿pacta sunt servanda?”. *Revista de Derecho, Empresa y Sociedad (REDS)* 1, 2013, 119. orr.

Auzitegiak azaldu zuen doktrina hau soilik aplikatu beharko litzatekeela, prestazioen arteko desoreka nabarmena zegoenean, eta ez prestazioetako bat ez dagoenean²⁶.

4. Hardship klausulak

Rebus sic stantibus klausulak eremu nazionalean duen aplikazioa eta izan duen bilakaera zein izan den aztertuta, ezinbestekoa da nazioarteko eremua ere aztertzea. Izan ere, 2020an bizi izan genuen osasun egoerak, mundu mailako eragina izan zuen, Espainiako kontratuak asaldatzeaz gain, nazioarteko kontratuak ere asaldatu zituelarik.

Hori horrela, aurreikuspen eta segurtasun-arrazoiak direla eta, nazioarteko merkataritzan, oro har, ezarri da kontratuaren edukian egokitze-klausula (*hardship clause*) txertatzeko praktika. Aitzitik, ia ziur gaude, hala egin ezean, auzitegiak berregokitze-uzia ezetsiko duela, *pacta sunt servanda* printzipioaren mesedetan, eta beraz, gaitzespen edo, hobeto, zigortuko duela klausula hori ezarri ez izana. Gainerakoan, esan daiteke, hardship klausula eta konpromisoa kontuan hartuta, arbitroak eskudantzia batzuk dituela konbentzio desorekatua egokitzeko²⁷.

4.1 Klausula 1980ko Vienako Hitzarmenaren argitan

Nazioarteko kontratuak, bi alderdiren edo gehiagoren arteko borondatea jasotzen duten akordioak dira, non, atzerritar elementu baten presentziaren ondorioz, kontratukideen arteko harremana, bi erregimen ezberdinen artean arautuko den. Arlo honetako nazioarteko testuen artean, 1980ko Vienako Hitzarmenari aipamen eginez, zalantzan jartzen da Salgaien nazioarteko salerosketa-kontratuei buruzko Nazio Batuen Hitzarmeneko 79. artikulua, *hardship* klausula barne hartzen duen ala ez. Alegia, zalantzan jartzen da, ea kontratua betetzeko ezintasuna *hardship* klausulen kontzeptura zabaltzen den ala ez.

Horretarako, artikulua berak dioena tentuz aztertzea komeni da. 79.1 artikulua esanetan, kontratukideetako alderdi bat ez da izango bere betebeharrak eratzeko ezin izango izan, baldin eta frogatzen badu ez-betetze hori bere borondatearekin zerikusirik ez duen eragozpen baten ondorio dela, eta arrazoiz ez bazen

²⁶ Sentencia del TS 343/1994 (Sala de lo Civil), de 20 de abril de 1994, ECLI:ES:TS:1994:22229.

²⁷ HINESTROSA, F. "Teoría de la imprevisión", *Revista de Derecho Privado*, 39, 2020, 29. orr.

espero eragozpena kontratua egiteko unean kontuan hartuko zuenik, hura saihestuko edota gaindituko zuenik, edota behintzat haren ondorioak saihestuko edo gaindituko zituenik²⁸.

Artikuluak dioena aintzat hartuta, eztaba daezina da, Hitzarmenak berak ez duela *hardship* klausularekiko aipamen zehatzik egiten. Artikulu honek, bere betebeharrak bete ezin izan dituen kontratu bateko alderdiak erantzukizunetik salbuesteko aukera eskaintzen du, betiere, frogatzen bada, ez betetze hori haren borondatek kanpoko eta aurreikusi ezinezko eragozpen baten ondorio dela. Nolanahi ere, 79. artikulua ez du aurreikusten kontratua berrikusi edota berriz ere negoziatzeko aukera, eta hauxe bera, alegia, birnegoziazioa da, hain zuzen ere, *hardship* klausularen helburu nagusia.

Hala, doktrina, erabat banandurik agertzen da eztabaida honen inguruan. Doktrinaren alderdi batek dio ulertu behar dela *hardship* klausula 79. artikulua eremu barruan geratzen dela, nahiz eta artikuluak horren aipamen espresik ez egin. Alegia, Vienako Hitzarmenak, artikulu honen bitartez egiten duena, kontratuaren erantzukizunetik salbuetsi ahal izatea da, aparteko egoera edota ezinbesteko inguruabarrak agertzen diren kasuetan. Aitzitik, artikulu honetan, *hardship* klausularen onarpena egiten dela uste dute, klausula hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa baita aparteko inguruabar horien presentzia egotea²⁹.

Ildo honetan, ezinbestekoa da doktrinaren alderdi honek, alegia, *hardship* klausula Nazio Batuen Hitzarmeneko 79. artikulua aplikazio-eremuan egotearen alde agertzen den alderdi honen argumentu nagusiak zertan datzan azaltzea. Izan ere, euren ikuspuntua indartzeko erabiltzen duten argumentu nagusia, artikuluak aipatzen duen “*impedimento*” terminoaren zehaztugabetasunean oinarritzen da, non, azken finean,

²⁸ Convención de las Naciones Unidas sobre los Contratos de Compraventa Internacional de Mercaderías, Viena, 11 de abril de 1980, artículo 79.1. *Una parte no será responsable de la falta de cumplimiento de cualquiera de sus obligaciones si prueba que esa falta de cumplimiento se debe a un impedimento ajeno a su voluntad y si no cabía razonablemente esperar que tuviese en cuenta el impedimento en el momento de la celebración del contrato, que lo evitase o superase, o que evitase o superase sus consecuencias.*

²⁹ CASTRO, A.M eta ZAPATA, A.C. “El Hardship en los Contratos Internacionales”, *Revista e-mercatoria* 4 (2), 2005, 13. orr.

termino honen interpretazioa estatu bakoitzaren esku geratuko litzatekeen, interpretazio zabal bat eginez eta ondorioz, *hardship* klausularen aplikazioa onartuz³⁰.

Aitzitik, badago doktrinan, argumentu honen aurka agertzen den beste multzo bat. 79. artikularen interpretazio autonomo eta hertsiago baten alde agertzen direlarik. Hauek, *hardship* klausularen aplikazio mugatuago baten alde egiten dute, soilik ezinbesteko kasuetara, ezintasun kasuetara edota kontratuaren frustraziora mugatzen dutelarik haren aplikazioa³¹.

4.2 Klausula UNIDROIT printzipioen argitan

Nazio Batuen Hitzarmeneko arauketaz gain, garrantzitsua da UNIDROIT printzipioetara jotzea, printzipio hauek, nazioarteko kontratuen zuzenbideko tresna garrantzitsuenetarikoak baitira. UNIDROIT, Zuzenbide Pribatua Bateratzeko Nazioarteko Institutua da, non, bertan xedatzen diren printzipioek, nazioarteko merkataritza kontratuetan aplikagarri diren arau orokorrak ezartzen dituzten. Horren haritik, UNIDROIT printzipioei buruz hitz egiten badugu, arauketa zehatz bat esleitzen zaiola ikus dezakegu klausula honi.

Ezer baino lehen, ezinbestekoa da aipatzea, printzipio hauen esanetan, *hardship* klausulak, *pacta sunt servanda*-ri muga edo salbuespena ezartzen diola³². Dena den, beharrezkoa da honen aplikagarritasuna noiz ematen den zehaztea. Alegia, kontratuetako alderdiek erabakitzen badute euren arteko harremana printzipio hauen bitartez arautuko dela, orduan posible izango da printzipio hauek aplikatzea. Era berean, alderdiek beren kontratua zuzenbidearen printzipio orokorren, “*lex mercatoria*”-ren edota antzeko adierazpenen arabera arautzea adosten badute, hauen aplikagarritasuna posible izango da. Eta azkenik, kontratukideek ez badute euren arteko harremana arautzeaz arduratuko den erregimenik aipatzen, printzipio hauek aplikatzera joko da.

Aipaturikoa aintzat hartuta, *hardship* klausula aztertzeari ekingo diogu. Ezer baino lehen, ezinbestekoa da aipatzea, Espainiako lurralde eremuan *rebus sic stantibus*

³⁰ SÁNCHEZ LORENZO, S.A. “Covid-19 y frustración de contratos internacionales”. *Anuario Hispano-Luso-Americano de derecho internacional*. 25, 2021, 37. orr.

³¹ *Ibid.*

³² HERRERO URTUETA. *op. cit.* 89. orr.

klausularen kasuan ez bezala, nazioarteko eremuan *hardship* klausulak baduela bere erregulazioa, hain zuzen ere, UNIDROIT printzipioetako 6.2.2. artikuluan. Nahiz eta printzipio horietako 1.3 puntuan, kontratuen betebeharezkotasunaz hitz egiten den, obligaziozko eremu honi salbuespen-eremu bat ere aurreikusten zaio, hots, *hardship* klausularen aplikazioa. Alegia, aurretik jakin ezinak ziren inguruabarrak nabarmenak eta nolabaiteko garrantzia dutenak badira, eta horrek alderdien prestazioen oreka aldatzen badu, salbuespenezko egoera bat sortzen dela esan daiteke, halako kasuetan, *hardship* klausula aplikatzea ahalbidetzen delarik.

Klausularen definizioa, 6.2.2 artikuluan ematen da. Artikuluaren arabera, *hardship* klausula aplikatuko da, kontratuaren oreka asalaturik agertzen denean, zenbait ezinbesteko inguruabarren ondorioz, edota, alderdietako baten konturako prestazioaren kontua handitu delako, edo alde batek jasotzen duen prestazioaren balioa murriztu egin delako. Gainera, inguruabar hauek gertatzeaz gain, beste zenbait galdakizun ere exijitzen dira. Hala nola³³:

- a) Desabantaila-egoeran dagoen alderdiak, kontratua egin ondoren izan beharko du ekitaldi edo inguruabar hauen berri.
- b) Kontratua egin zenean, desabantaila-egoeran zegoen alderdiak gertaera horiek kontuan hartu ezin izana.
- c) Gertaerek desabantaila-egoeran dagoen alderdiaren kontroletik ihes egin izana.
- d) Desabantailan zegoen alderdiak gertakari horien arriskua euren gain hartu ez izana.

Beraz, *hardship* klausula aplikatu ahal izateko eremu nazionalean nahiz nazioartekoan galdatzen diren baldintzak aztertu ondoren, garrantzizkoa da klausularen efektuak zein diren azaltzea.

³³ Principios UNIDROIT sobre los contratos comerciales internacionales, Roma, 2016. Artículo 6.2.2. Definición de *hardship*. Hay “excesiva onerosidad” (*hardship*) cuando el equilibrio del contrato es alterado de modo fundamental por el acontecimiento de ciertos eventos, bien porque el costo de la prestación a cargo de una de las partes se ha incrementado, o porque el valor de la prestación que una parte recibe ha disminuido, y:

(a) dichos eventos acontecen o llegan a ser conocidos por la parte en desventaja después de la celebración del contrato;

(b) los eventos no pudieron ser razonablemente tenidos en cuenta por la parte en desventaja en el momento de celebrarse el contrato;

(c) los eventos escapan al control de la parte en desventaja; y

(d) el riesgo de tales eventos no fue asumido por la parte en desventaja.

4.3 Klausularen irismena

Klausula hauek, kontratuaren birnegoziazioarekin hobekien datozenak dira. Horrela, klausula hauek, egiteko betebeharrak sortzen dituzte; funtsean, birnegoziatzeko betebeharra sortzen dute (izenak berak adierazten duen bezala); betebeharrak hori “baliabideetarako” betebehartzat hartu behar da, eta ez emaitzarako betebehartzat, hau da, alderdiak hurbildu behar dira kontratua egokitzeko eskaintzak birformulatzeko; bestela, birnegoziatzeari uko egitea eta birnegoziatzeko eskaintza ez oso larriak egitea kontratua ez betetzearen kasutzat hartu ahal izango litzateke, hots, ituna edo *hardship* klausula ez-betetzetzat jo ahal izango litzateke, eta ondorioz, kalte-galerak ordaintzeko erantzukizuna izango luke³⁴.

Ildo honetan, litekeena da, lehenik eta behin, inguruabarrak aldatuz gero, kontratua suntsiaraztea, agian ez *ipso iure* (ezintasun materialeko kasuetan gerta daitekeen moduan) baina bai, behintzat, aldaketa horrek kaltetutako zordunaren eskubide gisa eta, aldi berean, hartzekoduna kontraprestaziotik aske geratu ahal izango luke. Kasu horretan, kontratua iraungi egiten da, zordunak ez betetzeagatiko erantzukizunik izan gabe (ezintasun-kasuen antzera)³⁵.

Bigarren efektu posibleari dagokionez, kontratua egiterako unean eman ziren inguruabarren aldaketak ez luke kontratuaren iraungitze edota suntsiarazpena ekarriko, nahiz eta zorduna haren erantzukizunetik aske geratuko den. Kasu honetan, hartzekodunak kontratua amaitzeko eskumena izango luke, eta kontratuko bi alderdiek aukera izango dute kontratua aldatzeko edota egokitzeko³⁶.

5. Ezinbesteko kasuetarako klausulak (*fuera mayor*)

Ezinbesteko klausulak, bi alderdi edo gehiagoren artean burutzen diren hitzarmen edo kontratuetan txertatu daitezkeen klausulak dira. Mekanismo juridiko honek, kontratua betetzeko ezintasunaren aurrean, alderdiei erantzukizunaz salbuesteko

³⁴ GARCÍA-PITA LASTRES, J.L. *Contratos y COVID. El principio “Pacta Sunt Servanda” y la Regla “Rebus Sic Stantibus”*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2021, 507. orr.

³⁵ SÁNCHEZ LORENZO, S. “La frustración del contrato en el derecho comparado y su incidencia en la contratación internacional”. *Revista de la Corte Española de Arbitraje* 20, 2005, 76. orr.

³⁶ *Ibid.*

aukera aurreikusten die. Alegia, klausula hauek, kontratua bete ez duenak kalte-galerengatik ordaindu behar izatearen arau orokorrarekiko salbuespen dira. Izan ere, klausula hauek, kontratua ez betetzearen zergatia alderdietako baten erruz ere ez denean aplikatzen dira³⁷.

Klausula honen arauketa, Kode Zibileko 1105. artikuluan aurkitzen da. Funtsean, kontratua ez betetzea justifikatzen duen arau bat da, aurreikusi ezin ziren egoeretan edo, aurreikusita ere, saihetsezinak ziren egoeretan. Hots, ezinbesteko klausulak, alde batera uzten du arau-haustea egin duen alderdiaren erantzukizuna egoera horietan. Izan ere, inor ezin da ezinezkoa den zerbait egin behar izatera behartu, honek ez lukeelarik erantzun beharko, hura betetzeko gai ez izate hutsagatik³⁸.

Kode Zibileko artikulua berak, ez ditu klausula aplikatu ahal izateko bete beharreko betekizunak zein diren zehazten, ez baitu ezinbesteko kasu gisa zer ulertu behar den zehazten. Aitzitik, honek ez du zenbait baldintza bete behar izatek salbuesten, jurisprudenzia eta doktrina izan baitira kontzeptua osatzeko ardura izan dutenak. Hala, jurisprudenziaren esanetan, ezinbesteko kasua izango da, ezohiko gertaera bat, alderdiek aurreikusi ezin izan dutena edo, aurreikusita ere, saihestu ezin izan dutena. Noski, ikus dezakegu, ezinbestekotzat jo daitezkeen gertakariak teorikoki oso zabaldua den eta muga zehaztugabeak dituen kontzeptu zabal bat osatzen dutela, horregatik, jurisprudenzia eta doktrina izan dira klausularen aplikaziorako bete beharreko baldintzak ezartzearen arduradunak.

Kontratukideetako bat erantzukizun orotatik salbuetsita gera dadin kontratua betetzeko ezintasunagatik, honako baldintza hauek bete beharko dira: egotzezintasuna (*inimputabilidad*), aurreikusteko ezintasuna (*imprevisibilidad*), saihesteko ezintasuna (*inevitabilidad*) eta betebeharra ez betetzearen eta hura eragin zuen egitatearen arteko kausazko harremana³⁹.

³⁷ NOUSSIA, K. "Liability Insurance in the context of the Covid-19 Pandemic", *ICADE, Revista de la Facultad de Derecho* 110, 2020, 3. orr.

³⁸ GÓMEZ LIGÜERRE, C. "Fuerza Mayor", *Anuario de la Facultad de Derecho de la Universidad Autónoma de Madrid*, 2, 2021, 67. orr.

³⁹ POQUÉT CATALÁ, R. "Los últimos perfiles de la fuerza mayor como causa extintiva". *IUSLabor, Revista d'anàlisi de Dret del Treball* 2, 2015, 3. orr.

Baldintzetako lehenari dagokionez, alegia, egotzezintasunari (*inimputabilidad*) dagokionez, ezinbestekoa da hura sortzen duen egitatea zordunaren borondatek kanpokoa izatea, hau da, hari egotzi ezina izatea. Hala, ezinbesteko kasuak kontratua azkentzeko kasuan eragiten duen kausazko zehaztapenaren kanpo-izaerari egiten dio erreferentzia, obligatuaren ekintzatik kanpo geratzen dena, balizko ez-betetzearen egozgarritasuna baztertuz⁴⁰.

Aldiz, aurreikusteko ezintasunari (*imprevisibilidad*) erreferentzia eginez, aurreikusgarritasunaren bitartez neurtzen da, egitate baten produkzioa bizitzaren inguruabar normalen arabera kontuan har daitekeen ala ez. Baldintza hori betetzeko, gertaeraren normaltasuna eta maiztasuna hartuko dira kontuan. Era berean, ezohikoa den arren, gertaeraren probabilitatea ere aintzat hartuko da, kasuaren inguruabarrekin batera⁴¹.

Saihesteko ezintasunaren (*inevitabilidad*) kasuan, zordunak kontratua egitearen unean, saihestu ahal ezingo duen gertakaria izango da, eska dakioken eginbidearen arabera eta aitortzen zaizkion aurreikuspen-neurrien eta jakintzaren arabera. Gainera, saihesteko ezintasuna, arrazionaltasunarekin batera baloratu beharko da, alegia, saihesteko ezina izan den gertakaria, ez da materialki halako gertakari bat, baizik eta ezinbesteko gertaera bat da, pertsonen, denboraren eta lekuaren inguruabarrei dagokiena⁴².

Noski, ezinbesteko klausula aplikatzeko galdatzen den aurretik jakiteko ezintasuna (*imprevisibilidad*) eta saihetsezina (*inevitabilidad*) izatea, unean gertaturiko inguruabarren arabera baloratu beharko da. Alegia, ezin dira kontuan hartu ezinbesteko gertakariaren ondorengo inguruabarrak, benetan aurreikusezina edo saihetsezina zen zehazteko.

⁴⁰ MENDOZA NAVAS, N. “La fuerza mayor como causa de despido”. *Revista de Derecho Social* 63, 2013, 82. orr.

⁴¹ NAVAS-PAREJO ALONSO, M. “Fuerza mayor y otras causas de exoneración: su adaptación en el ámbito preventivo”. *Revista andaluza de trabajo y bienestar social* 128, 2015, 32. orr.

⁴² POQUÉT CATALÁ. *op. cit.* 5. orr.

Ildo honetan, ezinbesteko klausularen esanahia ez denean argia, auzitegien esku utziko da hauen interpretazioa, klausulan bertan aipatzen diren hitzen esanahi argi eta naturalaren arabera interpretatu beharko dutelarik. Alegia, ezinbesteko klausula baten ikuspegi zuzena, alderdiek kontratuan bertan azaldutako hitzen arabera interpretatzea izango da. Horretarako, auzitegiak, klausularen interpretazioa, kontratuaren testuinguruan egingo du. Hala, klausulak berak zehazten badu kontratua betetzea “ezindua” izan behar dela, kontratuaren betetzea ezinezkoa bilakatu beharko litzateke bai fisikoki edota legalki. Beraz, inolaz ere ez da ezinbesteko klausularen babespean geratuko kontratua betetzeko zailtasun hutsa edota errentagarritasuna galtze hutsa⁴³.

Modu berean, estatu-mailako auzitegiek ulertu dute ezinbesteko klausulak ezin izango direla diruzko betebeharretan baliarazi; hots, egiteko betebeharretan bakarrik alegatu ahal izango dela. Ondorioz, Auzitegi Gorenak azaldu zuen, beharrezkoa dela bereiztea alde batetik, prestazioa betetzeko gerora sortutako ezintasuna, gauza jakin bat entregatzeko edo egiteko betebeharren kasuei zuzentzen zaiena, baina ez diruzko prestazioei, eta beste alde batetik, prestazioa gehiegizkoa edo garestiegia den kasuak, *rebus sic stantibus* klausularen doktrinarekin bat datorrena, itundutako prestazioaren edukia edozein dela ere⁴⁴.

Gauzak horrela, Espainiako jurisprudentziak xedatu dituen aplikazio baldintzak zein diren ikusita, esan dezakegu, lehen begirada batez, eztabaidaezina izango litzatekeela Covid-19a ezinbesteko klausuletan sartzea. Epidemiak, aurreikusi ezinezko edota saihestu ezineko gertaera izatearen baldintza betetzen du, baina hau betetze hutsak, ez du alderdien arteko betebeharra iraungitzat jotzea ahalbidetzen, hau ez baita baieztapen absolutu bat. Lehenik eta behin, prestazioa betetzeko ezintasuna, era murriztaile batean interpretatu behar delako⁴⁵. Esaterako, ezusteko kasuak obligazioaren

⁴³ NOUSSIA, K. *op. cit.* 4. orr.

⁴⁴ Sentencia del TS 2344/2015 (Sala de lo Civil), de 19 de mayo de 2015, ECLI:ES:TS:2015:2344.

⁴⁵ Sentencia del TS 597/2012 (Sala de lo Civil), de 8 de octubre de 2012.

betetzean berandutzea eragiteak, ez du obligazioa betetzera beharturik dagoen alderdiaren askapena eragiten, ez eta hartzekodunak kontratua ebatzi ahal izatea ere⁴⁶.

Behin, ezinbesteko klausulak Espainia mailan jasotzen duen erregulazioa eta bere aplikaziorako galdatzen diren baldintzak zein diren ikusita, funtsezkoa da baita ere ezinbesteko klausuletan, nazioarteko kontratuetan jasotzen duten erregimena edota araudia zein den aztertzea. Ildo honetan, garrantzitsua da 1980ko Vienako Hitzarmenari aipamen egitea, izan ere, hitzarmenak dio, alderdien arteko kontratua betetzeko epea, ez bada funtsezko gisa izendatu, erosleak ezingo duela kontratua ebatzi arrazoizko epe baten barruan. Honek, zer esan handia izan dezake pandemiaren eremuan. Osasun larrialdi egoera honetan jaiotako zailtasunek ez baitute kontratua ebazteko edota obligatua askaturik geratzeko aukera ematen, baizik eta kontratua arrazoizko epe baten barruan bete behar izatea eragiten dute⁴⁷.

Era berean, Nazioarteko Merkataritza Ganbera (ICC, *International Chamber of Commerce*) aipatu behar da, honek, ezinbesteko kasuetarako bi klausula ezberdin sortu baititu, bata formulazio hedatuarekin eta bestea, berriz, murriztuarekin. Azken honek, irismen txikiagoa dauka, ez dituelarik nahitaez kontuan hartzen merkataritza-testuinguru espezifikokoan garrantzitsuak izan daitezkeen gatazka guztiak. Nazioarteko Merkataritza Ganberaren erregulazioaz gain, UNIDROIT printzipioetan ere, ezinbesteko klausulen arauketa jasotzen da bertako 7.1.7 artikuluan.

Zuzenbide kontinentaleko sistemai dagokienez, ezinbesteko klausulen kontzeptua, legezko formulazio zabal baten bidez finkatu da, epaileek kasuz kasu baloratu beharko dituztelarik klausulak berak, eta kasuan kasuko inguruabarrak. Dena dela, erreferentzia egin diezaiekegu zenbait herrialdeetako kasuei; hala nola, Frantziako Kode Zibileko 1218. artikuluan emandako erregulazioari, Alemaniako Kode Zibileko 275. artikuluari, edota Italiako Kode Zibileko 1256. artikuluari.

Behin ezinbesteko klausulak jaso dezakeen edukia zein den aztertuta, eta honen bidezko aplikaziorako eskatzen diren baldintzak zein diren ikusita, komenigarria da hartzekodunak halako kasuetan esku artean dituen aukerak zein diren ikustea, honek ez

⁴⁶ ÁLVAREZ, S. Pandemia, fuerza mayor y cláusula rebus sic stantibus a la luz de la Jurisprudencia. *Diario La ley*, 9619, 2020, *on line*. Ik. 2. puntua.

⁴⁷ *Ibid.* Ik. 1. puntua.

baitu kalte-galeragatiko ordaina jasotzeko aukerarik izango, esan bezala, klausula hauek erantzukizunetik askatzeko xedea baitute. Aitzitik, hartzekodunak, kontratua suntsiarazi ahal izango du, edo bere prestazioa betetzea eten (baldin eta oraindik gauza galdu edo hondatzeko arriskua hartzekodunari eskualdatu ez bazaio) bi erremedio horiek aplikatzeko baldintzen artean ez baitago ez-betetzearen egozgarritasuna⁴⁸.

Beraz, behin klausula eta printzipio hauek aztertuta, garrantzitsua da euren arteko ezberdintasunak argi geratzea. Izan ere, nahiz eta praktika juridikoan zaila izaten den ezberdintzea, badituzte euren arteko ezberdintasunak.

Rebus sic stantibus klausularekin eta ezinbesteko klausulekin hastearren, argi dago, biak aurretik jakiterik ez dagoen gertaeren aurrean aplikatzen direla, baldin eta kontratukideen arteko harremanean eragin saihetsezina badute. Hala ere, euren arten ezberdinak dira. Ezinbesteko klausulak aplikatuko dira, gertaera hain ustekabekoa denean (hau da, alderdien kontrol eremutik kanpo dagoena), non, alderdiek adostutako prestazio-plana edo programa gerora ezinezkoa edo bideraezina bihurtzen den, kontratuaren beraren helburua zapuztuz. Aldiz, *rebus sic stantibus* klausula aplikatuko da, aurreikusi ezin izan den gertaerak kontratukideen betebeharrak betetzea eragozten badu (betetzea ezinezko bilakatu gabe), modu iraunkor batean (edota ez iragankorrean behintzat) eta desoreka ekonomiko nabarmena eta gehiegizkoa eragiten badu. Hots, egoeraren aldaketa hain denean garrantzitsua, non, hura betetzeko galdatzea alderdietako bati, fede onaren aurkakoa izango litzatekeen eta ordenamendu juridikoa arbuatuko lukeen⁴⁹.

Era berean, *hardship* klausula ere ikusi dugu eta garrantzizkoa da hau eta ezinbesteko klausulak bereiztea. Hala, alde batetik, ezinbesteko klausulak, kontratua betetzeko ezintasunaren aurrean aplikatzen dira, eta *hardship* klausulak berriz, kontratua betetzea ezinezko sortzen duten inguruabarrak aldatzearen ondorioz. Bi klausulen arteko ezberdintasuna argitzearren, adibide bana azalduko dugu.

Ezinbesteko klausulekin hasiz, demagun bi alderdiek salerosketa kontratu bat egiten dutela, eta egun jakin bat hitzartzen dutela salgaien entregarako. Baina halako

⁴⁸ GREGORACI, B. “El impacto del Covid-19 en el Derecho de contratos español”. *Anuario de Derecho Civil*, 73, 2020, 460. orr.

⁴⁹ GÓMEZ POMAR, F. eta ALTI SÁNCHEZ-AGUILERA, J. *op. cit.* 508. orr.

batean, eguraldi bortitzaren ondorioz, tximista bat erortzen da fabrikari eta su hartzen du fabrikari berak eta bertako lehengai guztiek. Kasu honetan, kontratua betetzea ezinezkoa izango litzateke, eta ondorioz, kontratuaren ez betetze baten aurrean aurkituko ginbateke. Hori horrela, ezinbesteko klausularen aplikaziorako baldintzak betetzen diren ala ez aztertu beharko genuke, kontratuaren ez betetzearen aurrean, erantzukizunetik salbuetsi ahal izateko. Aurrez aipatu bezala, klausularen aplikaziorako lehen baldintza egotzezintasunarena da. Hala, kasu honetan, ikus dezakegu, kontratua betetzearen ezintasunaren kausa, eguraldi bortitza zela. Hortaz, eztaba daezina da hau, alderdietako inori egotzi ezinezko kausa dela. Beraz, lehen baldintza betetzat joko genuke.

Bigarren baldintzari dagokionez, alegia, aurreikusteko ezintasunari dagokionez, egia da, agian zalantzak eduki ahal izango genituzkeela, izan ere, zenbait baliabide dauzkagu gaur egun, aurreikusten den eguraldia zein den ikusteko. Aitzitik, norberaren lantokian tximista bat erori eta hark su hartuko duela uste izatea erabat aurreikusi ezina dela esan dezakegu. Beraz, posible izango litzateke baldintza hau betetzen dela baieztatzea. Saihesteko ezintasuna dela eta, ez dago zalantzarik baldintza hau betetzen dela, halako egoera baten aurrean oso zaila baita zerbait egin ahal izatea hura saihesteko. Hortaz, zalantzarik gabe betetzen den baldintza dela esan dezakegu. Azkenik, betebeharra ez betetzearen eta hura eragin zuen egitatearen arteko kausazko harremanaren baldintzari erreferentzia eginez, eztaba daezina da, kontratua ez betetzearen eta ez betetze hori eragin zuen egitatearen artean kausalitate harreman bat dagoela, alderdietako batek ezin izan baitu kontratua bete, eguraldi bortitza zela eta.

Hortaz, behin ezinbesteko klausulen baldintzak betetzen direla baieztatu ondoren, posible izango litzateke saltzailea erantzukizunetik salbuestea. Aldiz, *hardship* klausulen kasuan, imajina dezagun, kontratukideek autobusen fabrikaziorako zenbait piezen salerosketa kontratua burutzen dutela, prezio finko batean. Baina prezioen igoera baten ondorioz, piezak egiten dituen alderdiak kostu handiagoa jasan behar izan duela eta ondorioz, kontratuan hitzartutako prezioa igotzeko beharra ikusi duela, kontratuaren aldaketa eskatu duelarik, izan ere, aurreikusi ezin izan duen inguruabar horren ondorioz, kontratuko alderdietako bat onuradun irten da.

Beste alde batetik, ezinbesteko klausulak kontratua ez betetzeko bide bat dira, kontratuaren etetea edota amaiera ekartzen baitute. Aldiz, *rebus sic stantibus* klausulak eta *hardship* klausulak, ondorio berak izan ditzaketen arren, kontratuaren berregokitze

edo aldatzea dute helburu lehenik eta behin. Alegia, hasiera bateko inguruabarrak aldatu ondoren, kontratatzeke interesa duten alderdien artea oreka berririk dagoen jakin nahi da. Horregatik, inguruabarrak aldatzeari buruzko doktrinek birnegoziarioari ematen diote lehentasuna, hau da, jatorrizko kontratuaren baldintzak inguruabar berrietara aldatzeari. Behin, birnegoziario horrek huts egingo balu, kontratua suntsiarazteari buruzko arauak aktibatuko lirateke, hots, ezinbesteko klausulen bitartez lortzen den efektura joko litzateke⁵⁰.

6. COVID-19aren garaian, ezinbesteko klausulak hainbat herrialdeetan

Kontratua behar bezala gauzatzea arriskuan jartzen duen kanpoko egoera baten aurrean, lehenik eta behin kontratua aztertu behar da, alderdiek aurreikusi gabeko gertaerarik ote dagoen eta horri lotutako arriskuaren banaketa arautu ote duten egiaztatzeke. Bizi izan dugun egoera horren aurrean, kontratuaren ez betetzearen ondorioz, jasan beharko litzatekeen erantzukizunez salbuesteko bide bat aurkitzera jo izan da, ohikoena, ezinbesteko klausulak aztertzea izan delarik. Baina zenbait kasutan, hau ez da bide egokiena izan, bai kontratuak berak ez duelako halako klausularen presentziarik izan, edota eduki bai, baina ez duelako osasun larrialdiekiko zehaztapenik egin.

Hori horrela izanda, kontratuetan halako hutsune baten aurrean aurkitzean, beharrezkoa da kontratuari aplikagarri zaion legedia aztertzea. Hala, nahiz eta ezinbesteko klausulek kontzeptualizazio ezberdina jasotzen duten herrialdez herrialde, egia da, ontzat eman izan den kontzeptu orokor bat daukagula eskura. Hots, ezinbesteko klausulak, kontratu bateko alderdien kontroletik kanpo dagoen gertaera baten ondorioz aplikatzen dira, kontratua egiten den unearen eta bete behar den prestazioa gauzatzen den unearen artean gertatzen dena, eta (bati edo biei) bere betebeharrak betetzea eragozten duena.

Kontzeptu orokor honetatik abiatuta, posible da ezinbesteko klausulak kontratuan bertan esplizituki xedatzea, edota kontrara, inplizitua izatea, alegia, nazioarteko kontratazio-baldintza orokorretan integratua egotea. Covid-19aren presentzia azaldu baino lehen buruturiko kontratuetan, ez zen osasun-larrialdi edo

⁵⁰ GÓMEZ LIGÜERRE. *op. cit.* 73. orr.

pandemia bezalako egoerarik arautzen, aldiz, ondorengo kontratu gehienetan ikusi daiteke halako egoerarako aurreikuspena egiten dela⁵¹.

Testuinguru honetan, lagungarria izan daiteke ezinbesteko klausuletan halakotzat hartu ohi izaten diren gertaerak zein diren azaltzea. Hala, ezinbesteko klausulen aplikaziorako eskatzen diren baldintzak beteko balira, gerrak, matxinadak, edo gerra zibilak, istiluak, desordenak edo grebak, ezinbesteko klausuletan barnebildu ahal izango lirateke inongo zalantzarik gabe. Aldiz, badaude beste zenbait gertaera ezinbesteko klausuletan txertatu ohi izaten direnak, baina zalantzak suertatzen dituztenak, eta nekez onartu ohi izaten direnak ezinbesteko gertaera gisa. Hala nola, inportazio eta esportazio baimenik edo agintariak eskatutako baimenik ez izatea, finantza-zailtasunak izatea, kostuen, prezioen edo osagaien ustekabeko egoerak egon izana, edota zati edo material falta edo eskaria izatea.

Hala eta guztiz ere, aurretiaz aipatu bezala, erantzukizunez salbuesteko baliagarri diren klausula hauen arazo nagusiak auzitegiek klausula hauen gainean egiten duten interpretazio mugatuan datza. *Pacta sunt servanda* printzipio gorenaren ondorioz, klausulan bertan zehazki adierazten denetik abiatuta interpretatzen baitituzte klausulak. Aipaturikoa aintzat hartuta, zenbait herrialde hartuko ditugu abiapuntutzat, eta hauetako bakoitzean ezinbesteko klausulekiko dagoen araudia, eta Covid-19aren ondorioz emandako interpretazioa zein izan zen aztertzeari hasiera emango diogu.

6.1 Ezinbesteko klausulak Europako Zuzenbide Zibilean

Ezinbesteko kasuen kontzeptuak, tradizio kontinentaleko legedietan aurkitzen du bere kontsentsua, “inor ez dago ezinezkoa den hori egitera behartua” dioen printzipio gorenaren aplikazio gisa⁵². Hori horrela, eta Espainiako kasuan ikusi dugun bezala, Europa mailan, herrialdeetako ordenamendu gehienek jasotzen dute kontzeptu honen erregulazioa. Hala eta guztiz ere, nahiz eta tradizio kontinentaleko sistema juridikoek enbor amankomuna izan, ez diete trataera amankomunik eman kontzeptuari, kasu

⁵¹ LOZANO HERNÁNDEZ, J. “Lecciones del Covid-19. El incumplimiento previsible como una alternativa viable frente a la fuerza mayor y hardship del Art. 79 CISG”, *Cuadernos de derecho transaccional*, 15, 1, 2023, 476. orr.

⁵² CASTRO RUIZ, M. “Cómo afrontar lo inesperado. La fuerza mayor en la contratación internacional: ¿principio o cláusula?”, *Derecho PUCP, Revista de la Facultad de Derecho*, 74, 2015, 441. orr.

bakoitzean irismen ezberdina eman baitiote, hau da, legedi batetik bestera desberdinak diren elementuak ezarri dituzte⁵³. Hortaz, hau aintzat hartuta, hauetariko batzuk aztertzeari hasiera emango diogu.

6.1.1 Frantzia

Ezinbesteko klausulen kontzeptuak Frantziako Zuzenbide Zibilean dauka jatorria, bertako zuzenbidean berariaz arautzen delarik “*force majeure*” delakoa. Frantziako Kode Zibilaren 1218. artikulua ezartzen du ezinbesteko kasu baten aurrean egongo garela, alderdien kontrolatik kanpo dagoen gertaera bat gertatzen denean, eta kontratua amaitzean gertaera hori zentzuz aurreikusi ezin zitekeela ulertzen denean. Era berean, haren ondorioak saihestu ezinak izan beharko dira neurri egokiak hartuta. Hori gutxi balitz, artikulua haratago doa, aplikatu beharreko ondorioak zehazten baititu:

- a) Egoera aldi baterakoa bada, kontratua eten egingo da, baldin eta atzerapenak kontratuaren suntsiarazpena justifikatzen ez badu.
- b) Egoera behin betikoa bada, kontratua zuzenbide osoz suntsiaraziko da, eta alderdiak beren betebeharretatik aske geratuko dira.

Hori horrela, ikusi dezakegu, Espainiako Zuzenbidean jasotzen duen erregulazioarekin alderatuz, arauketa sendoago eta osatuago bat jasotzen duela Frantzian, baina, era berean, ezinbesteko klausulak, aurreikusi ezineko eta saihestu ezineko kasuetan aplikatzean oinarritzen dira bertan ere, ezinbestean. Alegia, ezinbesteko klausulen aplikaziorako galdatzen diren hiru karaktereak (aurreikusteko ezintasuna, saihesteko ezintasuna eta alderdien kontrolatik kanpo eratorritako gertaera izateko beharra), frantziar zuzenbidetik eratorriak dira.

Dena den, kontuan hartuta ez dagoela inongo gertaerarik, berez, gertaera huts horrek ezinbesteko kasu gisa kalifikatzea suposatzen duena, kontratuen errealitateak, kasuaren inguruabarrek eta alderdien beharrek erakutsiko dute ezinbestekotzat jotzen den kontzeptu juridikoa baliaraztea komeni den ala ez, eta horrek ezinezko egiten du kontratua betetzea edo ustekabearen teoria aplikatzea, azken teoria honek kontratua

⁵³ FRANCO LEGUÍZAMO, C.A. “Caleidoscopio de la Fuerza Mayor (Derecho comparado e internacional)”, *Revista e-mercatoria*, 8, 1, 2009, 8. orr.

betetzea zailtzen edota garestitzen duelarik. Beraz, azterketa hori kasuz kasu egin beharrekoa izango da.

Covid-19aren pandemiaren harira, bereziki, zalantzak sortu daitezke gertaeraren aurreikusteko ezintasunaren gainean, kontratua egiteko unearen arabera. Izan ere, kontratua egiterako unean, jada European koronabirusen kasuak ezagutzen baziren, zalantzan jartzeko modukoa izan daiteke klausularen bete beharreko betekizun hau. Hortaz, nahiz eta Covid-19ak eragindako krisiak lehen begirada batez, halakotzat jotzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela iruditu, denbora-faktoreak ere, garrantzia handia izango du. Hala, zenbait autoreek 2020ko martxoaren 11 hartzen dute abiapuntutzat, Osasunaren Mundu Erakundeak Covid-19a “pandemia” gisa kalifikatu zuen eguna, non, une horretatik aurrera ekitaldiak ezin izango diren aurreikusi ezinak kontsideratu. Aldiz, beste batzuek diote zaila izango litzatekeela “martxoan” egindako kontratu baten esparruan aurreikusteko ezintasuna hautematea⁵⁴.

Hala, aurreikusteko ezintasunari dagokionez, Frantziako jurisprudentziak behin eta berriz adierazi du hondamendi naturalak, printzearen egintza, gerraren ondoriozko gertaerak, atentatuak edo sabotaje egintzak, besteak beste, ez direla ezusteko gertaerak *per se*, baizik eta aurreikusteko ezintasuna erlatiboa dela, hau da, lekuaren, orduaren, dataren eta eskualdeko baldintza meteorologiko orokorren arabera hauteman behar dela, kasu bakoitzaren inguruabar berezien arabera, alegia.

Saihesteko ezintasunaren kasuan, pertsona arrunta hartzen da erreferentzia gisa, normalean arretatsua, agentearen egoera berean dagoena. Modu abstraktuan egindako hautemate bat da. Hala ere, jurisprudentziak aitortzen du *intuitu personae* egiteko betebeharrak izanik, kontuan hartzen dela zordunaren pertsona, jasanezintasuna epaitzeko. Jurisprudentziak, batzuetan, onartu egin du egintza bat ezinbesteko kasutzat jotzeko jasanezintasun hutsa, gertaera hori, aurreikusita ere, ezin izan denean jasan. Ildo honetan, Frantzian nagusitzen den jurisprudentziaren arabera, ezinbestekoaren nozioa pertsona horretatik kanpo aurreikusi ezin den egitate bat da. Horregatik, gertakizun bat

⁵⁴ PAZOS CASTRO, R. “La respuesta del derecho de obligaciones y contratos francés ante la pandemia de Covid-19”, *Revista de Derecho Civil*, 7, 2, 2020, 52. orr.

ezinbesteko kasutzat jotzeko baino ez da eskatzen aurreikustezko ezintasuna eta jasateko ezintasuna⁵⁵.

Frantzia jasotzen duen araudia aintzat hartuta, mundu mailan eragina izan zuen osasun-larrialdiaren garaian, kontratuetakoa ezinbesteko klausulei emandako interpretazioa zein izan zen aztertzeari hasiera emango diogu, eta ezer baino lehen, argitu behar da, hondamendi naturalak ez direla automatikoki zuzenbide frantseseko ezinbesteko gertaera gisa kalifikatzen. Hau da, epidemien kasu zehatzetan, frantziar auzitegiak ez dute adierazi hauek ezinbesteko kausa gisa onartzeko joera dutenik, baldin eta epidemia jada aurreikusita bazegoen kontratua egin zen unean edota epidemia ezaguna eta endemikoa bazen, eta ez hilgarria. Beraz, Frantziako zuzenbidearen mendeko kontratuetan, Covid-19aren epidemia eta estatuek hartutako erabakiak aurreikusi ezinezkotzat eta saihetsezintzat jo daitezkeen edo ez aztertu beharko da, Frantziako Kode Zibilaren 1218. artikulua aplikatu ahal izateko⁵⁶. Dena den, nahiz eta Frantziako auzitegiak oso murriztaileak izan gaixotasun larriak ere ezinbesteko kasutzat hartzeko orduan, Covid-19a bezalako gertaera berezi eta sistemikoen eraginetan oinarritzen ez den, uste da, pandemia zuzenean erortzen dela Frantziako zuzenbideko ezinbesteko doktrinaren mende⁵⁷.

Esanak esan, argi dago, nekez aplika daitezkeen kontzeptua dela ezinbesteko kasuena. Hala, kontzeptu hau aplikatzea ez balitz posible izango, beste kontzeptu batzuetara jotzeko aukera egongo litzateke. Hain zuzen ere, Kode Zibileko 1186. artikulua, funtsezko elementuetako bat desagertzeagatik kontratu bat iraungitzea aurreikusten duena, edota Kode Zibileko 1220. artikulua, egikaritze-ezaren salbuespenari buruzkoa.

6.1.2 Italia

⁵⁵ DURÁN PIDERAHITA, M.P. “La cláusula de fuerza mayor en los contratos internacionales”, *Revista de Derecho Privado*, 21, 1998, 181. orr.

⁵⁶ ÉCIJA Abogados. *Informe: Exención o renegociación contractual ante Covid-19, perspectiva internacional*, 2020 apirila, 5. orr.

⁵⁷ BERGER, K.P. eta BEHN, D. “Force Majeure and Hardship in the Age of Corona: A Historical and Comparative Study”, *McGill Journal of Dispute Resolution. Revue de règlement des différends de McGill*, 6, 4, 2019-2020, 95. orr.

Italiaren kasuan, ez dago Frantziako kasuan bezain araudi argirik, ez baitago ezinbesteko kasuetarako definizio zehatzik. Aitzitik, ezinbesteko kasuak arautzen dituzten arauak Italiako Kode Zibilaren 1218, 1256 eta 1463-1464 artikulua dira (aurrerantzean KZ). Hala, aipaturiko lehen artikulua, hots, 1218. artikulua, behartuaren erantzukizuna arautzen du, zorduna ez delarik izango ez betetzearen edo kontratua egikaritzea atzeratzearen erantzule, baldin eta frogatzen badu ez betetzea edo atzeratzea bere kontroletik kanpoko gertaera batek eragin duela.

KZ 1256. artikulua berriz, alderdien arteko obligazioetarako arau orokorra xedatzen du. Arau orokor honek behin betiko ezintasuna eta aldi baterako ezintasuna arautzen ditu (*impossibilità sopravvenuta*). Hala, alde batetik, jarduera behin betiko ezinezko bihurtu bada zordunari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik betetzea ezinezkoa denean, betebeharra azkendu egingo da. Aldiz, beste alde batetik, ezintasun hori aldi baterakoa bada, zorduna ez da betebeharra betetzeko atzerapenaren erantzule izango ezintasunak irauten duen bitartean. Hala ere, betebeharretik aske geratzen da zorduna, baldin eta eginbeharraren tituluekin edo xedearen izaerarekin zerikusia duen ezintasuna bere horretan irauten badu, zorduna jada ez bada behartutzat jotzen betebeharrak betetzera, edo hartzekodunak jada ez badu interesik.

KZ 1463. artikulua dagokionez, ezintasun osoa arautzen du. Hala, ezintasun oso batek zati batean bakarrik jarduteari eragiten dioenean, bere betebeharratik askatutako alderdiak ezin du beste aldearen betetzea erreklamatu, eta alderdiak, bitartean jaso badu, itzuli egin beharko du jasotakoa.

Era berean, 1467. artikulua, prestazioa bete ezin duen alderdiak kontratua suntsiarazteko aukera duela xedatzen du, aparteko eta aurreikusi ezinezko gertaera baten ondorioz kontratuko alderdien prestazioen oreka ezegonkortu delako. Hots, aurrez azaldu dugun *excesiva onerosidad* delakoaren kontzeptua arautuko litzateke artikulua honetan, baina inongo kasuan ez da ezinbesteko kasuetarako aplikagarri izan daitezkeen klausulen inguruko aipamenik egiten, ez eta hauen gaineko definiziorik ematen. KZ 1467. artikulua, ebazpena jasan behar duen aldeak hori saihestu dezakeela adierazten du, kontratu-baldintzen aldaketa eskainiz, ekitatera egokitze. Aldaketa hori ez da nahitaezkoa alderdi horrentzat. Artikulu hau betebeharraren sinalagmatikoei aplikatzen zaie aldizkako edo etengabeko egikaritze-kontratuetan edo egikaritze geroraturako kontratuetan.

Dena den, funtsezkoa da aipatzea, *excesiva onerosidad* kontzeptuak, ez duela kontratua betetzeko ezintasuna aintzat hartzen, prestazio-ahalegina garestitzea edo areagotzea hartzen baitu bere gain. Hortaz, prestazioa betetzea ezinezkoa izatekotan, bai fisikoki (*force majeure*) edota legez (*factum principis*) aplikatu beharreko arauak prestazioa betetzeko ezintasunarenak (*impossibilità sopravvenuta*) izango lirateke (KZ 1256. artikulua e.o.)⁵⁸.

Hala eta guztiz ere, legeak ez duenez ezinbesteko kasuak zer esan nahi duen definitzen (eta terminoa ere ez denez erabiltzen), Italiako auzitegiek zehaztu dute eragozpen objektiboa dela, eta ezaugarri hauek dituela: egozgarritasunik eza (baita errudun gisa ere), saihesteko ezintasuna eta gertaeraren aurreikusgarritasunik eza⁵⁹. Zehazki, 2021eko maiatzaren 18an azaldu zuen Auzitegi Gorenak, hiru elementu horiek eman beharko zirela ezinbesteko kasu gisa deklaratu ahal izateko⁶⁰.

Beraz, kontratua burutzeko unean, gertaera aurreikusgarria bazen, eta gainera Italiako KZ 1176. artikulua zordunari eskatutako eginbideak eragotzi ahal izango balu gertaera hura gertatu izana (saihesterik bazegoen, alegia), ezin izango da ezinbesteko kasu gisa kalifikatu gertaera hura italiar legearen esanetan. Beraz, gertaera bat ezinbestekotzat kalifikatu daitekeen eta ezinezko bihurtu den betebeharra iraungitzeko gai den zehazteko, epaimahaiek kasuz kasu aztertu behar dute baldintza horiek betetzen diren ala ez⁶¹.

Hau kontuan izanda, Covid-19aren larrialdiari dagokionez, ez da automatikoki ezinbestekotzat hartuko den gertakaria. Aurrez aipatu bezala, gertaeraren ezin aurreikusizko eta saihesteko ezintasunaz gain, beharrezkoa da zordunak Italiako Kode Zibilaren 1176. artikulua eskatzen duen eginbidea betetzea, eta ondorioz, ezusteko gertaera hori izatea, zordunaren jokabidearen eta obligazioa ezin gauzatzearen arteko lotura etiologikoa hautsi duena.

⁵⁸ GÓMEZ POMAR, F. eta ALTI SÁNCHEZ-AGUILERA, J. *op. cit.* 535. orr.

⁵⁹ ÉCIJA Abogados. *op. cit.* 6. orr.

⁶⁰ SANZO, S.; CASTELLI, L.; COPPOLA, G.P. eta DEL NERO, L. "Force Majeure: Italy", in: *Te Legal 500-Country Comparative Guides 2021*, 2021, <https://www.lcalex.it/wp-content/uploads/2021/08/Force-Majeure-Italy.pdf>

⁶¹ *Ibid.*

Edozein kasutan, kontuan izan behar da, Italiar auzitegiek Covid-19aren izaera berezia eta ustekabekoa berretsi izan zutela. Izan ere, 2020ko martxoaren 17ko 18. Lege Dekretuko 91. artikulua atal berri bat erantsi zion 2020ko otsailaren 23ko 6. Lege Dekretuko 3. artikuluari. Dekretuan aipatzen diren konfinamendu-neurriak betetzea beti ebaluatuko da, KZ 1218. eta KZ 1223. artikuluekin bat etorritik, zordunaren erantzukizuna baztertzeko, baita berandu egindako edo egin gabeko jarduketekin zerikusia duen edozein konfiskazio edo zehapen ezartzeari dagokionez ere.

Hortaz, ikus dezakegu, Italiako legegileak pandemiari aurre egiteko ezarritako neurriak betetzeak erantzukizunetik salbuetsi dezakeela zorduna, hala nola, kalte-ordainak ordaintzetik, kontratu-zigorak ordaintzetik eta zerbitzua emateko betebeharretik salbuetsi dezake, bere obligazioa bete ezin izan badu estatuak exijituriko neurri murriztaileak betetzeko beharraren ondorioz⁶².

Osasun-larrialdiak, beraz, justifikatu egiten du ez-betetzea, eta, aipatutako lege-xedapenetan oinarrituta, obligazioa berreskurazina dela argudiatu ahal izango litzateke, betetzeko epea amaitzearen ondorioz larrialdiaren zain. Hala ere, Covid-19ko krisia nazio-mailako, aparteko eta aurreikusi ezinezko gertakaritzat jo daiteke, non, gertakari honen ondorioak, ezin izango lirakekeen zordunaren diligenziarekin gainditu edota behintzat, eten⁶³.

6.1.3 Alemania

Italiaren kasuan bezala, Alemaniaren kasuan ere ez dira zuzenean erregulatzen ezinbesteko kasuak. Hala ere, terminoa bera erabiltzen ez den arren, Alemaniako Kode Zibilak ere (BGB) ezinbesteko kasuaren doktrinaren antzeko ondorioak dituen erregulazioa aurreikusten du.

Bertako zuzenbide positiboan jasotzen dena aztertzen hasi aurretik, doktrina alemaniarren geldione bat egitea komeni da. Zehazki, kontratuaren oinarriaren teoria deituriko doktrinan. Izan ere, teoria honek alderdien adostasunarekin dauka lotura,

⁶² GEMMA, A. eta RIOS, E.R. "Covid-19 emergency and force majeure: considerations concerning the Italian legal framework", Pepper Hamilton LLP, 2020, <https://www.troutman.com/images/content/2/4/246536/G-Force-Majeure-COVID-19-57472079-1.pdf>

⁶³ *Ibid.*

ulertzen baita alderdiek kontratua sinatzean, kontuan hartzen dituztela hari eragiten dioten inguruabar guztiak. Kontratuaren inguruan sortzen den paradigma horrek, kontratu-adostasunaren oinarria denak, une horretan dauden inguruabarrak eta alderdiek aurreikusi behar dituztenak biltzen ditu. Hala, bi alderdien inguruko inguruabarrek oinarri komun bat eraikiko lukete, kontratuaren oinarri gisa balioko luketenak, eta horiek gabe, alderdiak lotuko ez zirenak. Behin kontratuaren oinarri finkatu ondoren, beharrezkoa da teoria hau aplikatu ahal izateko galdatzen diren baldintzak zein diren zehaztea, teoria honekin, *pacta sunt servanda* printzipioaren zorrotasun hori malgutzear aurkitzen baita. Hori horrela, beharrezkoa da, kontratuaren inguruabarrak funtsean aldatzea, kontratuko alderdiek aurreikuspenik ez izatea eta kontratuaren ekonomia haustea⁶⁴.

Dena dela, funtsezkoa da jakitea, teoria hau doktrinaren eraikitze huts bat izan den, ala legalki arau bat izatera heldu den. Hala, esan bezala, alemaniar zuzenbidea haratago joan da, bertako Kode Zibilean txertatu duelarik instituzio hau.

Alde batetik, (BGB § 275ak) KZ 275. artikulua, obligazioa betetzeko ezintasunaren ondoriozko askapena arautzen du, ezintasun hori denean ez-betetzearen kausa, eta honek edozein pertsonari edota zordunari soilik eragiten dioenean, izan ere, ezinezkoa den zerbait, ez da bete behar⁶⁵. Gainera, artikulua berak dio zordunak betebeharra betetzeari uko egin diezaiokeela, baldin eta hartzekodunak jardun horretan duen interesarekiko neurritz kanpoko ahalegina eskatzen badu, kontratu-harremanaren edukia eta fede oneko betekizunak kontuan hartuta. Era berean, zordunak uko egin diezaioke prestazioa betetzeari, berak egin behar badu pertsonalki, eta ezin izango zaio eskatu prestazioa betetzeko, behin eragozpenak haztatuta hartzekodunak prestazioa betetzeko duen interesaren aurrean⁶⁶.

Beste alde batetik, Alemaniako Kode Zibilaren 313. artikulua ezartzen duenez, kontratuaren oinarria osatzen duten inguruabarrak nabarmen aldatzen badira, kontratua aldatu edo suntsitu ahal izango da, baldin eta ez bada arrazoizkoa alderdietako batek

⁶⁴ HERRERO URTUETA, E. *op. cit.* 95. orr.

⁶⁵ FRANCO LEGUÍZAMO, C.A. *op. cit.* 14. orr.

⁶⁶ ÉCIJA Abogados. *Op. cit.* 6. orr.

kontratua betetzea⁶⁷. Beraz, ez-betetzeagatiko erantzukizunaren modulatzailerak dira, ekitatea kontuan hartzen dutelarik, betebeharreko alderdiak ez betetzea justifikatu ahal izateko.

Gaiari helduz, Covid-19a ezinbesteko kasu gisa izendatu den ala ez aztertuko dugu Alemaniaren kasuan. Alemaniako legeriaren arabera, gaixotasunen hedapena ezinbesteko gertaeratzat har daiteke. Honen adibide garbia izan zen 2004ko azaroaren 9ko epaia, AG Augsburg kasua, epai honek 2003ko SARs agerraldia halakotzat hartu baitzuen. Kasu honi erantzuna eman ahal izateko ere, kasuko egitateetan oinarritu zen Auzitegia, alderdiak kontratuaren zati batzuk betetzea galarazi zien etete bat izan baitzuen, eten hori, kanpo gertaerek eragina izan zelarik⁶⁸.

Hala eta guztiz ere, Covid-19aren gaiari aurre egiten dion edozein klausula, kasuz kasu idatzi behar da Alemaniako legeriaren arabera, batik bat, Covid-19a jada ez delako aurreikusi ezinezko gertaera bat. Hortaz, orain egindako kontratuetan argi dago, ezinezkoa izango litzatekeela ezinbestekotzat jotzea⁶⁹. Alegia, kontratuan ezinbesteko klausula bat atxikitzen denean, errazagoa izaten da ezinbesteko kasutzat jotzea gertaera. Hori horrela, kontratukideek arretaz berrikusi beharko lituzkete euren kontratuak koronabirusaren eraginez. Horrela, kontratuan klausula bera atxikitzen den kasuetan, litekeena da Covid-19aren pandemia estalita egotea, ondorioz, klausularen ondorio juridikoak aplikatuko direlarik. Dena den, esan beharra dago, Covid-19aren pandemia ezinbesteko gertakaritzat hartuko dela, pandemia bera ezagutu aurreko kontratuetan, hots, 2020ko martxoaren aurretiaz eginiko kontratuetan gutxi gorabehera.

Aldiz, kontratu berriagoen kasuan, eta klausula hau atxikita ez duten kontratuaren kasuan, beharrezkoa izango da aztertzea, ea ezintasun subjektibo edota objektibo baten presentzia ematen den. Izan ere, halakorik egongo ez balitz, transakzioaren oinarriarekiko interferentziari buruzko printzipioak aplikatuko lirateke, printzipio hauen

⁶⁷ LOYCKE, D. "Germany", CMS Expert Guide to the Law and regulation of force majeure, 2023. <https://cms.law/en/int/expert-guides/cms-expert-guide-to-force-majeure/germany>

⁶⁸ ELSEVEN, A. *Force Majeure, COVID-19 Coronavirus & Commercial Law in Germany*, Schlun & Elseven, 2021. <https://se-legal.de/force-majeure-covid-19-coronavirus-commercial-law-in-germany/?lang=en>

⁶⁹ LOYCKE, D. *op. cit.*

aplikazioak ere, aurreikusi ezin den gertaera bat eskatzen baitute. Hala, transakzioaren oinarria eteten dela baieztatzen bada, hornidura-kontratua doitu egin daiteke, hau da, bereziki, entrega-epea aldatu daiteke. Hori horrela, soilik, doikuntza bat arrazoizkoa ez denean hornitzailearentzat edota bezeroarentzat, utz daiteke kontratua bertan bera atzera egiteagatik edo ezerezteagatik⁷⁰.

6.2 Ezinbesteko klausulak *Common Law* sisteman

Jakina denez, ezinbesteko kasuetarako kontzeptua, Zuzenbide Zibil kontinentaleko doktrinaren kontzeptua da, ez delarik, beraz, *Common Law* delakoan onarturiko doktrina bat. Alabaina, oso berezkoak dituen nozio horien garapena gorabehera, *Common Law* delakoaren sistema juridikoek *force majeure* kontzeptu frantsesa erabiltzen dute kontratua bete eta amaitzeko aitzakia gisa. Hori ezinbesteko klausula berezien bidez egin da. Klausula horietan, alderdiek ezohiko gertaerak jasotzen dituzte, betetzea oztopatzen dutenak eta, jarraian, gertaera horien ondorioak adierazten dituztenak. Halako estipulaziorik ezean, frustrazioaren eta merkataritza-erabilgarritasunik eza (*commercial impracticability*) delakoaren teoriak aplikatu beharko dira⁷¹.

Horregatik, ordenamendu juridikoen mende dauden eta *Common Law*aren printzipioetan oinarritzen diren kontratuetan (batez ere, Erresuma Batua eta Australia), bai alderdiak aukeratuta, bai Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak aplikatuta, oso garrantzitsua da alderdiek kontratu horietan argi eta garbi mugatzea zein kasutan geratuko liratekeen alderdiak beren betebeharrak betetzetik salbuetsita edo are gehiago, kontratua suntsiaraztea erabaki dezakete.

Hortaz, ezinbesteko kasuetara gerturatzen den doktrina bat ez izateak, ikus dezakegu, ez duela eragozten kontratu-erregulaziorik ezean, ezin argudiatzea kausaren

⁷⁰ LAUDAHN, J. *Force Majeure under German, French and US Law*, Friedrich Graf von Westphalen & Partner mbB, 2020, <https://www.fgvw.de/en/news/archive-2020/force-majeure-under-german-french-and-us-law>

⁷¹ CASTRO RUIZ, M. *op. cit.* 445. orr.

baten presentzia eman dela, eta kausa horrek behin betiko eragotzi edo larriki zailtzen duela bakoitzak gauzatu behar izan dituen prestazioak betetzea⁷².

Testuinguru honetan, *Common Law* sistemaren parte diren zenbait herrialdek, ezinbesteko klausulekiko egindako interpretazioa nondik norakoa izan zen aztertzeari ekingo diogu, pandemiaren presentziaren ondorioz.

6.2.1 Erresuma Batua

Ezer baino lehen, funtsezkoa da argitzea, Erresuma Batuan ez dagoela inongo Kode Zibilik, eta beraz, kontratuen zuzenbideari buruzko funtsezko arauak ez daudela inongo arau-testutan, *Common Law* izenekoan baizik (hau da, epaileek eta auzitegiek ebatzitako kasuetan aurkituriko jurisprudentzia kasuetan). *Common Law*, *Case Law* bezala ere ezaguna, Zuzenbidearen iturria da Erresuma Batuan. Hala ere, lege idatzia baino ordena hierarkiko baxuagoan kokatzen da (legeriak *Common Law* mugiarazi dezakeelako, nahiz eta *Common Law* ezin den legedi idatziaren kontra jarri)⁷³.

Horrela, esan bezala, ezinbesteko kontzeptuak, Frantziar Zuzenbidean du bere jatorria, bertako Kode Zibilean ezinbesteko kasuen xedapen espresuak aurki ditzakegularik, kontratua betearaztea desenkusutzen dutenak alderdien kontroletik kanpoko inguruabar bat gertatzen denean, eta hura aurreikusi ezina eta saihestu ezina denean. Kontratua betearazteko obligazioaz salbuesteaz gain, kalte-galeren erreklamazioa baztertzeko ere erabilia izan daiteke mekanismo hau. Hala ere, ezinbesteko kasuen kontzeptua, ez da Erresuma Batuko legearen kontzeptu independentea, hau da, esan daiteke, kontzeptu juridiko kontraktual bat dela.

Erresuma Batuko zuzenbidea *Pacta Sunt Servanda* printzipioa guztiz errespetatzen duen ordenamendua da, bere kontratu-sistemaren funtsezko zutabea delarik. Hala, bertan, “*Paradine*” araua eraiki zen, non, *pacta sunt servanda* printzipioa ezartzen zen forma absolutu gisa, kontratuekin erabat bermatzailea zena. Honek, disfuntzionalitateak edo bidegabekeriak sortzen ditu gertaera jakin batzuk sortzen diren

⁷² ÉCIIA Abogados. *op. cit.* 7. orr.

⁷³ CARTWRIGHT, J. “Una introducción al derecho de contratos inglés”, *Crónica Jurídica Hispalense: revista de la Facultad de Derecho*, 13, 2015, 16. orr.

kasuetan. Ondorioz, kontratuen frustrazioaren doktrina sortu zen, Erresuma Batuko zuzenbidean kontratuak betetzeari buruz zegoen absolutismoari malgutasuna eman ziona⁷⁴. Frustrazioaren doktrina honek, gerora sortutako ezintasunaren, prestazioaren gehiegizko kostuaren edota kontratuaren amaieraren frustrazioaren supostu erabat ezberdinak barnebiltzen ditu. Horietan guztietan, ordea, printzipio bera dago: hasiera batean negoziatu zen bezala aldatu da lotura, kontratugileen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik⁷⁵.

Ildo berean, printzipio bat nagusitu zen aspaldian, non, honen arabera, kontratugile bakoitza lotuta geratzen den kontratuko obligazioa betetzera edota kontratuko zehapena betetzera, ezinezkoa izanik ezusteko inguruabar baten ondorioz, obligazioa betetzetik salbustea eskatzea, betiere, alderdiek esplizituki eta prebentzios adostu ez bazituzten horrek kontratu-programan izango lituzkeen ondorioak. Hau, naturala da *common law* sisteman, honek, erremedioak bereganatzeko joera baitu. Sistema honetan, tutelarako printzipio nagusia, kontratuaren exekuzioa dela ulertzen da, non, kontratua exekutatzea beti posible dela kontsideratzen duten. Hala, kontratua betetzen duen alderdiak, beti izango du babes-judiziala edota tutelarako eskubidea, baita ere, beste alderdiak kontratua bete ez duenean gerora sortu eta egotzi ezin zaizkion gertakariengatik⁷⁶.

Beraz, aintzat hartuta ezinbesteko kasuen kontzeptuak ez duela bere jatorririk Erresuma Batuko zuzenbidean, ez eta inongo arauketarik ere, ezinbesteko kasuetarako klausula baten erredakzioak, kontratuko alderdietako bat salbuetsiko luke bere kontratuan hitzartutako erantzukizunetik, hau da, kontratuan aurreikusten den alderdien arteko arrisku-esleipenetik, alderdiek kontratua egin zuteneko inguruabarretatik eta gertaturiko egoeratik.

Ildo honetan, klausula hauen aplikaziorako biderik errazena, klausulan bertan ustekabean gertaturiko egoerari erreferentzia egitea izango da, “pandemia”, “Jainkoaren

⁷⁴ HERRERO URTUETA, E. *op cit.* 91. orr.

⁷⁵ GARCÍA CARACUEL, M. *La alteración sobrevenida de las circunstancias contractuales*, Dykinson, Madrid, 2014, 61. orr.

⁷⁶ CHAMIE, J.F. “*Frustration of contract e impossibility of performance en el Common Law inglés*”, *Revista de Derecho Privado*, 6, 2009, 188. orr.

Egintza” edo “Gobernu edo Estatuaren Egintza” bezalako gertaerak txertatuz klausulan bertan. Hau da, kontratuetak alderdiei, klausula hauek txertatzea gomendatzen zaie, modu honetara, kontratu-zuzenbideko arau orokorrak aplikatu eta ondorioz, hauek dakartzaten ondorio gogorrak aplikatzea saihesten da⁷⁷. Aitzitik, halakorik izendatzen ez bada klausulan bertan, zaila izango da Covid-19a bezalako gertaera bat ezinbesteko kontzeptuan barne hartzea.

Hala eta guztiz ere, kontratuan klausula honen presentzia egoteak, edota halako egoeren aipamena egiteak, ez du derrigorrez alderdietako bat bere obligazioa betetzeaz salbuesten. Alegia, klausula honetaz baliatu nahi duen alderdiak, Covid-19aren eta obligazioa betetzeko ezintasunaren arteko harremana zuzena dela adierazi beharko du.

Erresuma Batuko legearen arabera, ustekabeko inguruabarren ondorioz soilik desenkusatuko da kontratua betetzea, betiere, aurretiaz aipaturiko frustrazioaren doktrinan barne hartu badaiteke egoera. Doktrina hori lehenespenez aplikatuko da, alderdiek kontratuan besterik adosten ez badute.

Behin Erresuma Batuan nagusi den doktrina hau aztertu ondoren, garrantzitsua da honek kontratuarengan izan ditzakeen ondorioak zein diren zehaztea. Izan ere, zalantza handiak sortu izan dira kontratuaren birnegoziazioaren edo kontratua azkentzearen gainean. Dikotomia honen aurrean praktika ingelesa argia da eta kontratuaren azkentzearen alde egiten du. Postura honek, ez du zalantzarik onartzen, hau da, edo kontratua betetzen da hitzartu bezala, edota kontratua azkenduko da hura birnegoziatzeko aukerarik gabe. Hala, frustrazioaren doktrinaren aplikazioa baieztatzen bada, kontratua azkenduko da, baieztapena egiten den unetik efektuak sortuko dituelarik⁷⁸. Azkentze-ondorioa, beraz, ez dago alderdietako baten adierazpenaren menpe, edo are gutxiago, ondorio azkentzailea eragiteko asmoz judizialki aurkeztutako erreklamazioaren edo uziaren menpe. Kontratuaren amaiera, ordea, ez da

⁷⁷ CARTWRIGHT, J. *op. cit.* 29. orr.

⁷⁸ HERRERO URTUETA, E. *op. cit.* 92. orr. Honekin bat datoz: GÓMEZ POMAR, F. eta ALTI SÁNCHEZ-AGUILERA, J. *op. cit.* 550. orr.

atzeraginezkoa, eta, beraz, ez dira aldatu kontratuaren arabera betetako betebeharrak eta trukaturako prestazioak, frustrazioa eragin duen gertaeraren datara arte⁷⁹.

6.2.2 Ameriketako Estatu Batuak

Erresuma Batuko Zuzenbidearen kasuan gertatzen den bezala, Ameriketako Estatu Batuak, *Common Law* sistemaren jarraitzaile dira, eta hori horrela izanda, ez da ezinbesteko kasuetarako xedapen edo arauketarik aurkitzen hemen ere. Hortaz, derrigorrezkoa izango da kontratuan bertan ezinbesteko klausulen txertaketa egitea, ezusteko inguruabar baten ondorioz obligazioetatik salbuetsi ahal izateko.

Alabaina, Ameriketako Estatu Batuak osatzen dituzten estatu gehienek zenbait doktrina jasotzen dituzte, hala nola, ezintasunaren doktrina eta frustrazioaren doktrina. Hauek, inguruabar jakin batzuetan, aukera ematen dute aldeak beren kontratu-betebeharrak betetzetik salbuesteko, baina ezinbesteko klausularik ez dagoenean soilik.

Ildo honetan, nahiz eta Erresuma Batuko Zuzenbidearekin jatorri amankomuna izan, Ameriketako Estatu Batuek berezko bilakaera izan dute, jarrera propio bat eratzea lortu dutelarik. Hala, alde batetik, erabilezintasunaren doktrina (*doctrine of impracticability*) sortu zen, honen bitartez, zorduna bere betebeharretik askatu zitekeelarik, obligazioa betetzea egingaitz bihurtzearen kasuan, eta beste alde batetik, Erresuma Batuen nozioan inspiraturiko frustrazioaren doktrina (*frustration*).

Bi doktrinen kasuan, honek sortzen duen efektua, berdin-berdina da, alegia, prestazio-bideragarritasunik ezak edo kontratuaren xedea zapuzteak kalteturiko kontratatzailea salbuestea dakar, batak edo besteak lortutako kontratu-betebeharrei dagokienez⁸⁰.

Erabilezintasunaren doktrinaren (*impracticability*) abiapuntua, obligazioak burutzeko edota exekutatzeko erraztasunean aurkitzen da. Horrela, doktrina honek dio, epaileak ondorioztatu dezakeela, betebeharra oraindik materialki eta zilegitasunez bete ahal izanda ere, horren betearazpenaren edo kontratua exekutatzearen kostua hain dela

⁷⁹ GÓMEZ POMAR, F. eta ALTI SÁNCHEZ-AGUILERA, J. *op. cit.* 550. orr.

⁸⁰ GÓMEZ POMAR, F. eta ALTI SÁNCHEZ-AGUILERA, J. *ibid.*

neurrigabea, kontratuaren justizia hausten duela⁸¹. Doktrina horrek inguruabar jakin batzuk baloratzea eskatzen du, halakorik dagoen ala ez baloratu ahal izateko. Horretarako, beharrezkoa izango da zenbait baldintza betetzea, esate baterako, ezusteko gertakari bat gertatzea eskatzen da, aurreikuspenik eza kontratuaren oinarritzko premisatzat hartuta, gainera, gertakizun horrek eginezin bihurtu behar du obligazioa betetzea, ez hori bakarrik, eragindako alderdiak ez du erantzukizunik izan behar gertaera eragilean, eta azkenik, gertaera hori ez da arriskuaren eremuaren barruan sartu behar⁸².

Beraz, aipaturiko baldintzak betetzekotan, erabilezintasunaren doktrina aplikatzea ahalbidetuko litzateke, kontratua berrikusi edo egokitzea eragingo lukeelarik, kontratua indarrean mantentzeko xedez. Dena den, posible izango litzateke kontratua azkentzea ez balu zentzurik izango kontratua moldatzeak⁸³.

Edozein modutan, nahiz eta jurisprudentziak sekulako pisua ezartzen duen *Common Law* sistemarekiko, aipatzekoa da doktrina honek izugarritzko eragina izan duela bertako zuzenbide positiboan, zenbait arauetan jaso eta arautzea heldu delarik. Lehenengo, *Restatement* deituriko jurisprudentzia-arauen bilduman arautu zen, zehatzagoak izanik, Estatu konfederatu bakoitzak diziplinatutako sektoreetan gartutako jurisprudentzia-arauen bilduman, doktrinak behar bezala antolaturikoa eta berrikusitakoa⁸⁴. Ondoren, kontratuen alorrean nagusi den testuan arautu zen, alegia, *Uniform Commercial Code*an. Honek, doktrinan antzeko oinarriak izan arren, jatorri ofiziala du, eta kodifikazio modurik zabalena da Estatu Batuetako zuzenbide pribatuaren eremuan, Estatu guztiek onartzen duten aldi berean⁸⁵.

⁸¹ GARCÍA CARACUEL, M. *op. cit.* 116. orr.

⁸² HERRERO URTUETA, E. *op. cit.* 93. orr.

⁸³ *Ibid.*

⁸⁴ CHAMIE, J.F. “*Frustration of Contract e Impossibility of performance en el Common Law Estadounidense*”, *Revista de Derecho Privado*, 18, 2010, 97. orr.

⁸⁵ CHAMIE, J.F. *ibid.*

7. Ondorioak

Lan honetan zehar, Covid-19aren eraginez, prestazioak betetzeko ezintasunari eta gerora sortutako desorekari aurre egiteko mekanismo ezberdinak aztertu dira. Era berean, mekanismo hauek bai Europa mailako, nahiz *Common Law* sistemako beste zenbait herrialdeetako ordenamenduetan jasotzen duten erregulazioaz hitz egin da. Beraz, atal honen bitartez, zenbait ondorio aipatuko dira, lanari itxiera emanez.

Eztabaida ezina da, kontratuen eta obligazioen eremuko zuzenbidea etengabe eraldatzen joan dela. Aldaketa hauek, pixkanaka egin dira, denboran zehar jarraituak izan dira eta gizarteak bizi izan duen karga aldatzaile izugarriaren eragina izan dute, honek, eragin zuzena izan duelarik kontratuen printzipioetan.

Lehendabizi aztertutako kontzeptuaren harira, hau da, *pacta sunt servanda* printzipio gorenaren harira, ezinbestekoa da printzipio hau, *rebus sic stantibus* klausularekin harremanean ulertzea. Izan ere, argi dago, *pacta sunt servanda* printzipioa funtsezkoa dela kontratuen segurtasuna eta berme juridikoa ziurtatzeko, baina begibistakoa da, gizarteak ez dela estatikoa, eta posible dela ustekabeko inguruabarrak gertatzea. Hortaz, bi elementu hauetako baten alde egitea baino, egokiagoa da, biak batera interpretatu eta hauen arteko oreka bat bilatzea.

Kontratuak berrikusi eta aldatzea ahalbidetzen duen *rebus sic stantibus* klausulari dagokionez, eztabaida handiak sortu dira pandemiaren harira. Esan bezala, klausula jurisprudentzial edota doktrinal bat baita, ez dagoelarik ordenamenduan jasota. Horrela, Covid-19aren ondorioz, zalantzan jarri da ea hau erregulatzea beharrezkoa izango litzatekeen edo ez. Hau Kodean jasotzearekin, klausularen aplikazio normalizatua ahalbidetuko litzateke, eta gainera, kontratuko alderdiak ezusteko gertaeren aurrean irtenbideak aurkitzea bultzatuko litzateke, alderdietako inork ezin izango lukeelarik *pacta sunt servanda* printzipiora eutsi modu absolutuan. Aitzitik, egia da, ez dela beharrezkoa hau Kodean jasota egotea honen aplikazioa ahalbidetu ahal izateko, espainiar auzitegiek aspalditik presente izan duten mekanismo bat baita, eta nahiz eta modu murriztailean izan, klausula honen aplikazioa posible izan baita zenbait kasu zehatzetan.

Bestalde, *rebus sic stantibus* klausularen efektu nagusia kontratuaren egokitzapen edo berrikuspenean izanik, komenigarria izango litzateke alderdiek fede onez

eta malgutasunez jokatzeari euren artean, eta kontratua suntsitu edo epaitegietara jo baino lehen, kontratua birnegoziatzea eta bi alderdien interesek kontserbatzea, kontratuaren iraupena xedetzat hartuta.

Aipaturiko azken klausula honekin batera, funtsezkoa da ezinbesteko klausulei erreferentzia egitea. Kontratu anitzetan ikusi dezakegun arren klausula hauen presentzia, beste zenbaitek ez baitute klausula hauek txertatzeko joera izaten euren kontratuetan, eta aurrez esan bezala, gizartea etengabe aldatzen doan heinean, gerta daiteke ustekabeko kasuen aurrean aurkitzea. Beraz, klausula hauek atxikitzearen garrantzia azpimarratzea beharrezkoa da.

Egia da, Covid-19aren kasuan bezala, ez dela erraza izaten gertakari hura zehazturik agertzea klausulan bertan, eta ondorioz, zaila izaten dela erraztasunez egoera klausulan barnebiltzen dela adieraztea. Baina honek berak erakusten du 2020an bizi izan genuen osasun-larrialdiaren ustekabeko izaera, kontratukideen kontrol eremutik kanpo zegoena. Hau da, eztabaida ezina da, pandemia hura, erabat aurreikusi ezina eta saihestu ezina zela, eta noski, alderdietako inori egotzi ezina zela. Beraz, jakina izanda, kasuz kasu egin beharreko azterketa, auzitegien esku utzi beharreko zeregina dela, koronabirusa ezinbesteko kasu gisa izendatu beharko litzatekeela argi dagoela irizten dugu.

8. Bibliografía

Lanean zehar aipaturiko esteka guztiak, 2023ko maiatzaren 12an kontsultatuak izan dira azken aldiz.

ÁLVAREZ, S. Pandemia, fuerza mayor y cláusula rebus sic stantibus a la luz de la Jurisprudencia. *Diario La Ley* 9619, 2020, *on line*. <https://diariolaley.laleynext.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEAMtMSbF1CTEAAmMDCwNDQ7Wy1KLizPw827DM9NS8kIS1nMSk1BznJTUkNSKElugWGpRZrJrUVF-EQBAuiuQOwAAAA==WKE>

ARNAU MOYA, F. *Lecciones de derecho civil II. Obligaciones y contratos*, Universitat Jaume I, Servei de Comunicació i Publicacions, Castell-o de la Plana, 2008-2009.

BENITO OSMÁ, F. “La excesiva onerosidad en las prestaciones en la contratación mercantil” in SÁNCHEZ RUIZ, M. MORILLAS JARILLO, M.J.; PERALES VISCASILLAS, M.P. PORFIRIO CARPIO, L.J. (Zuz.) *Estudios sobre el futuro Código Mercantil: libro homenaje al profesor Illescas Ortiz*, Universidad Carlos III de Madrid, 2015, 1223-1238.

BERGER, K.P. eta BEHN, D. “Force Majeure and Hardship in the Age of Corona: A Historical and Comparative Study”, *McGill Journal of Dispute Resolution. Revue de règlement des différends de McGill*, 6, 4, 2019-2020, 79-129. <https://mjdr-rdm.ca/files/sites/154/2020/07/Berger-and-Behn-Force-Majeure-and-Hardship-in-the-Age-of-Corona-1.pdf>

CARTWRIGHT, J. “Una introducción al derecho de contratos inglés”, *Crónica Jurídica Hispalense: revista de la Facultad de Derecho*, 13, 2015, 15-35. <file:///C:/Users/64529/Downloads/UNA%20INTRODUCCI%C3%93N%20AL%20DERECHO%20DE%20CONTRATOS%20INGL%C3%89S.PDF>

CASTIÑEIRA JERÉZ, J. “Hacia una nueva configuración de la doctrina rebus sic stantibus: a propósito de la sentencia del Tribunal Supremo de 30 de junio de 2014”, *InDret* 4, 2014, 1-26. <https://indret.com/wp-content/themes/indret/pdf/1090.pdf>

CASTRO, A.M eta ZAPATA, A.C. “El Hardship en los Contratos Internacionales”, *Revista e-mercatoria* 4(2), 2005, 1-26. <https://biblat.unam.mx/hevila/Emercatoria/2005/vol4/no2/4.pdf>

CASTRO RUIZ, M. “Cómo afrontar lo inesperado. La fuerza mayor en la contratación internacional: ¿principio o cláusula?”, *Derecho PUCP, Revista de la Facultad de Derecho*, 74, 2015, 441-484. <file:///C:/Users/64529/Downloads/13605-Texto%20del%20art%C3%ADculo-54334-1-10-20150813.pdf>

CHAMIE, J.F. “Frustration of contract e impossibility of performance en el Common Law inglés”, *Revista de Derecho Privado*, 6, 2009, 187-211. <file:///C:/Users/64529/Downloads/Dialnet-FrustrationOfContractEImpossibilityOfPerformanceEn-3052676.pdf>

CHAMIE, J.F. “Frustration of Contract e Impossibility of performance en el Common Law Estadounidense”, *Revista de Derecho Privado*, 18, 2010, 95-122.

[file:///C:/Users/64529/Downloads/Dialnet-FrustrationOfContractEIpossibilityOfPerformanceEn-3251966%20\(1\).pdf](file:///C:/Users/64529/Downloads/Dialnet-FrustrationOfContractEIpossibilityOfPerformanceEn-3251966%20(1).pdf)

DURÁN PIDERAHITA, M.P. “La cláusula de fuerza mayor en los contratos internacionales”, *Revista de Derecho Privado*, 21, 1998, 173-214. <https://repositorio.uniandes.edu.co/bitstream/handle/1992/47324/fuerza-mayor-contratos-internacionales.pdf?sequence=1>

ÉCIJA Abogados. *Informe: Exención o renegociación contractual ante Covid-19, perspectiva internacional*, 2020. https://ecija.com/wp-content/uploads/2020/04/00.ECIJA_Covid_Contratos_Internacional.pdf

ELSEVEN, A. *Force Majeure, COVID-19 Coronavirus & Commercial Law in Germany*, Schlun & Elseven, 2021. <https://se-legal.de/force-majeure-covid-19-coronavirus-commercial-law-in-germany/?lang=en>

FRANCO LEGUÍZAMO, C.A. “Caleidoscopio de la Fuerza Mayor (Derecho comparado e internacional)”, *Revista e-mercatoria*, 8, 1, 2009, 1-51. <https://revistas.uexternado.edu.co/index.php/emerca/article/view/2037/1824>

GARCÍA CARACUEL, M. *La alteración sobrevenida de las circunstancias contractuales*, Dykinson, Madrid, 2014, 1-526.

GARCÍA LÓPEZ, S.; DURÁN VARGAS M.S.; eta BLANCO GONZÁLEZ, G. “La Rebus Sic Stantibus en España. Evolución jurisprudencial” in IZAGUIRRE GÓMEZ, S.; PERALES VISCASILLAS, P.; ELÍAS DE TEJADA CASANOVA, J.M. eta LÓPEZ MARTÍNEZ-ACACIO, P. (zuz.) *La rebus sic stantibus en tiempos de pandemia: análisis general e impacto por sectores económicos*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2021, 179-223.

GARCÍA-PITA LASTRES, J.L. *Contratos y COVID. El principio “Pacta Sunt Servanda” y la Regla “Rebus Sic Stantibus”*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2021, 1-526.

GARRIDO GÓMEZ, M.I. “Lo que queda del principio clásico *Pacta Sunt Servanda*”. *Derecho y Cambio Social* 25, 2011, 1-8. <file:///C:/Users/64529/Downloads/Dialnet-LoQueQuedaDelPrincipioClasicoPactaSuntServanda-5497978.pdf>

GEMMA, A. eta RIOS, E.R. “Covid-19 emergency and force majeure: considerations concerning the Italian legal framework”, Pepper Hamilton LLP, 2020. <https://www.troutman.com/images/content/2/4/246536/G-Force-Majeure-COVID-19-57472079-1.pdf>

GÓMEZ LIGÜERRE, C. “Fuerza Mayor”, *Anuario de la Facultad de Derecho de la Universidad Autónoma de Madrid*, 2, 2021, 63-74. https://repositorio.uam.es/bitstream/handle/10486/704223/AFDUAM_extra_02_5.pdf?sequence=1&isAllowed=y

GÓMEZ POMAR, F. eta ALTI SÁNCHEZ-AGUILERA, J. “Cláusula rebus sic stantibus, viabilidad y oportunidad de su codificación en el Derecho civil español”, *Indret* 1, 2021, 502-577. <https://indret.com/wp-content/uploads/2021/01/1611.pdf>

GREGORACI, B. “El impacto del Covid-19 en el Derecho de contratos español”. *Anuario de Derecho Civil*, 73, 2020, 455-490. <file:///C:/Users/64529/Downloads/Dialnet-ElImpactoDelCOVID19EnElDerechoDeContratosEspanol-7504477.pdf>

HERRERO URTUETA, E. “La ruptura del equilibrio contractual: Hacia una tendencia común desde diferentes derechos nacionales”. *REDUR-Revista Electrónica de Derecho de la Universidad de La Rioja* 19, 2021, 87-107.

file:///C:/Users/64529/Downloads/bibybape,+05_Herrero.pdf

HINESTROSA, F. “Teoría de la imprevisión”, *Revista de Derecho Privado*, 39, 2020, 9-29. <file:///C:/Users/64529/Documents/TFG/Teor%C3%ADa%20de%20la%20imprevisi%C3%B3n.pdf>

JEREZ, J.C. “Pacta sunt servanda, imprevisión contractual y alteración sobrevenida de las circunstancias”, *Revista Aranzadi de derecho patrimonial*, 29, 2012, 71-106. https://insignis.aranzadidigital.es/maf/app/document?srguid=i0ad6adc600000187084fbd2bde90e59&mar_ginal=BIB\2012\2945&docguid=I52dfcb80fbb11e1bde201000000000&ds=ARZ_LEGIS_CS&infotyp_e=arz_biblos;&spos=1&epos=1&td=2&predefinedRelationshipsType=documentRet

LAUDAHN, J. *Force Majeure under German, French and US Law*, Friedrich Graf von Westphalen & Partner mbB, 2020. <https://www.fgvw.de/en/news/archive-2020/force-majeure-under-german-french-and-us-law>

LÓPEZ MOLINA, M. “Lidiando con lo imprevisible. Consecuencias jurídicas, contractuales, de acontecimientos inesperados y posibles soluciones legales”, *Diario La Ley* 9639, 2020 on line. <https://diariolaley.laleynext.es/dli/2020/05/12/lidiando-con-lo-imprevisible-consecuencias-juridicas-contractuales-de-acontecimientos-inesperados-y-posibles-soluciones-legales>

LOYCKE, D. “Germany”, *CMS Expert Guide to the Law and regulation of force majeure*, 2023. <https://cms.law/en/int/expert-guides/cms-expert-guide-to-force-majeure/germany>

LOZANO HERNÁNDEZ, J. “Lecciones del Covid-19. El incumplimiento previsible como una alternativa viable frente a la fuerza mayor y hardship del Art. 79 CISG”, *Cuadernos de derecho transaccional*, 15, 1, 2023, 470-490. <https://e-revistas.uc3m.es/index.php/CDT/article/view/7550/5952>

MENDOZA NAVAS, N. “La fuerza mayor como causa de despido”. *Revista de Derecho Social* 63, 2013, 73-95. https://www.tuasesorlaboral.net/images/centro_de_documentacion/LA%20FUERZA%20MAYOR%20COMO%20CAUSA%20DE%20DESPIDO.pdf

NAVAS-PAREJO ALONSO, M. “Fuerza mayor y otras causas de exoneración: su adaptación en el ámbito preventivo”. *Revista andaluza de trabajo y bienestar social* 128, 2015, 13-50. https://e-archivo.uc3m.es/bitstream/handle/10016/35243/fuerza_TLRATBS_2015.pdf?sequence=1&isAllowed=y

NOUSSIA, K. “Liability Insurance in the context of the Covid-19 Pandemic”, *ICADE, Revista de la Facultad de Derecho* 110, 2020. <https://revistas.comillas.edu/index.php/revistaicade/article/download/15009/13968?inline=1>

PARRA LUCÁN, M.A. “La clausula *rebus sic stantibus* en la Jurisprudencia de la Sala Primera del Tribunal Supremo de España”. *Anuario de la Facultad de Derecho de la Universidad Autónoma de Madrid* 2, 2021, 25-37. https://repositorio.uam.es/bitstream/handle/10486/704221/AFDUAM_extra_02_3.pdf?sequence=1&isAllowed=y

PAZOS CASTRO, R. “La respuesta del derecho de obligaciones y contratos francés ante la pandemia de Covid-19”, *Revista de Derecho Civil*, 7, 2, 2020, 47-74. <file:///C:/Users/64529/Downloads/559-2740-1-PB.pdf>

PETER BERGER, K. eta BEHN, D. “Force Majeure and Hardship in the Age of Corona: A Historical and Comparative Study”, *McGill Journal of Dispute Resolution. Revue de règlement des différends de McGill*, 6, 4, 2019-2020, 79-129. <https://mjdr-rdm.ca/files/sites/154/2020/07/Berger-and-Behn-Force-Majeure-and-Hardship-in-the-Age-of-Corona-1.pdf>

POQUÉT CATALÁ, R. “Los últimos perfiles de la fuerza mayor como causa extintiva”. *IUSLabor, Revista d’anàlisi de Dret del Treball* 2, 2015, 1-18. <https://raco.cat/index.php/IUSLabor/article/view/288729/381725>

Principios UNIDROIT sobre los contratos comerciales internacionales, Roma, 2016.

RAVÉNTOS SOLER, A.; LUNA YERGA, A. eta XIOL BARDAJI, M. Cuesta abajo y sin frenos. Comentario a la sentencia de la Sala Primera del Tribunal Supremo, de 30 de junio de 2014, *Revista Aranzadi Doctrinal* 3, 2015, 115-134. https://insignis.aranzadidigital.es/maf/app/document?srguid=i0ad6adc50000187084e6b500b73866d&mariginal=BIB\2015\545&docguid=Iecbe6260bbcc11e4924c01000000000&ds=ARZ_LEGIS_CS&infotype=arz_biblos;&spos=1&epos=1&td=3&predefinedRelationshipsType=documentRetr

RODRIGUEZ, E. “El rebus sic stantibus en la contratación internacional”, *Iuris Tantum. Revista Boliviana de Derecho*, 16, 2013, 30-49. <http://www.scielo.org.bo/pdf/rbd/n16/n16a03.pdf>

SÁNCHEZ LORENZO, S. “La frustración del contrato en el derecho comparado y su incidencia en la contratación internacional”. *Revista de la Corte Española de Arbitraje* 20, 2005, 45-88. <https://digibug.ugr.es/bitstream/handle/10481/7501/FRUSTRACION%20DEL%20CONTRATO.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

SÁNCHEZ LORENZO, S.A. “Covid-19 y frustración de contratos internacionales”. *Anuario Hispano-Luso-Americano de derecho internacional*. 25, 2021, 23-51. <https://digibug.ugr.es/handle/10481/71650>

SANZO, S.; CASTELLI, L.; COPPOLA, G.P. eta DEL NERO, L. “Force Majeure: Italy”, in: *Te Legal 500-Country Comparative Guides 2021*, 2021, <https://www.lcalex.it/wp-content/uploads/2021/08/Force-Majeure-Italy.pdf>

VIVAS TESÓN, I. “Crisis económica y alteración extraordinaria de las circunstancias del contrato, ¿pacta sunt servanda?”. *Revista de Derecho, Empresa y Sociedad (REDS)* 1, 2013, 113-130. <file:///C:/Users/64529/Downloads/Dialnet-CrisisEconomicaYAlteracionExtraordinariaDeLasCircu-5594820.pdf>

9. Jurisprudencia eta araudia

Sentencia del TS 343/1994 (Sala de lo Civil), de 20 de abril de 1994, ECLI:ES:TS:1994:22229

Sentencia del TS 597/2012 (Sala de lo Civil), de 8 de octubre de 2012.

Sentencia del TS 2823/2014 (Sala de lo Civil), de 30 de junio de 2014, ECLI:ES:TS:2014:2823.

Sentencia del TS 2344/2015 (Sala de lo Civil), de 19 de mayo de 2015, ECLI:ES:TS:2015:2344.

Sentencia del TS 156/2020 (Sala de lo Civil), de 6 de marzo de 2020.

Convención de Viena sobre el Derecho de los Tratados (Viena, 1969.05.23)

Convención de las Naciones Unidas sobre los Contratos de Compraventa Internacional de Mercaderías (Viena, 1980.04.11)

Alemaniko Kode Zibila, BGB- *Bürgerliches Gesetzbuch* (1896)

Espainiako Kode Zibila, *Código Civil* (1889)

Frantziako Kode Zibila, *Code civil des Français* (1804)

Italiako Kode Zibila, *Codice civile* (1942)